

## DATORRENA

Pandemia eta gerra hots artean, bi itzulien sistema **MAITE UBIRIA BEAUMONT > 3**

**SEGURTASUN BILA:** Victoriak eta Ibrahimek, Ukrainatik ihesi, Gazan topatu dute babesak **> 8**

2022ko apirilaren 2a | XVI. urtea • 768. zenbakia  
0,50 euro

**GAUR8** 

mila leiho zabalik  
[www.gaur8.info](http://www.gaur8.info)



# AUTISMOARI PAREZ PARE BEGIRATU

AUTISMOAREN NAZIOARTEKO EGUNA DA GAUR. OKASIO APROPOSA ATEAK ETA LEIHOAK IREKI ETA HORREN ATZEAN ZER DAGOEN ERAKUSTEKO. HORIXE EGIN NAHI DU APNABIK, AUTISMOA DUTEN BIZKAIKO PERTSONEN ETA FAMILIEN ELKARTEAK. PERTSONA BAKOITZA MUNDU BAT DA ETA MUNDUAREKIN ERLAZIONATZEKO MODU PROPIOA DU. HORI IZAN DAITEKE ABIAPUNTUA. **> 22** APNABI





**Nasak, kitxuak eta euskaldunak, minez eta itzaropenez, elkarri begira** 04

**Covid-19a sortu zen Txinara itzuliko ote da izurritea?** 07

**Ukrainako gerratik ihesi, Gazan aurkitu dute segurtasuna** 08

**Arturo Campion euskaltegia, 50 urte Iruñeko bihotzean** 12

**Telesail gehiago ikusten ditugunetik, gutxiago irakurtzen al dugu?** 17

**Elkarrizketa: Mikel Pulgarin, Apnabi-ko presidentea** 22

**In fraganti: Hidenao Dohino** 27

**Juantxo Egañaren behatxulotik** 31



**SINADURAK:**

- 03 **Maite Ubiria Beaumont:** Pandemia eta gerra hots artean, bi itzulien sistema
- 10 **Saioa Aginako Lamarain:** Merezi duzu
- 11 **Iñaki Altuna:** Korrika amaitu ostean pausoz pauso segitzeko
- 15 **Unai Gaztelumendi**
- 16 **Antton Izagirre:** Begien bistan dena ez da «dena»
- 16 **Miren Azkarate Badiola:** Denbora(z) bizi
- 20 **Itziar Elizondo Iriarte:** Metagerra
- 21 **Iker Barandiaran:** Esnatze lotiak
- 30 **Ainara Estarrona Ibarloza eta Izaskun Etxeberria Uztarroz:** Egungo teknologia iragana ikertzeko



{ datorrena } **Maite Ubiria Beaumont**

# Pandemia eta gerra hots artean, bi itzulien sistema

**A**ljeriako gatazkaren lokatzetatik ateratzeko ihesbide izan zen V. Errepublika. Kolonialismoaren orrialde ilunaren gainean kosta ahala kosta Estatuaren zutabeak sendotzeko mahai gainean emandako kolpea. Geroztik, munduan aldaketa handiak gertatu badira ere, frantses Konstituzioan sartutako egokitzapenek ez dute, funtsean, Estatuaren izaera apenas aldarazi.

Batik bat Europar Batasunaren bilakaerari jarraitzeko edo gizarte eztabaidei eragiten dieten hainbat eguneraketa burutzeko erreformak gauzatu dira. Izan ere, ez da inondik inora *reset* batekin parekatu daitekeen desmartzarik bultzatu. Aldiro-aldiri, V. Errepublikak finkatu zuen boterearen kudeaketa eredia gaingintzat eman dute berdin politikagintzatik zein akademiatik. Hala ere, 1968ko erreboltak auzian eman zuen demokrazia autoritarioa atzean utzita geltoki berrirantz abiatuko den trenaren errailetara ez dute jarri. Globalizazio garaiaren eskutik heldutako burujabetza eta demokraziaren «errebisionismoari» buruz oharra eginenez, erreforma orokorraren aldeko kanpaina egin zuen 2017an Jean-Luc Melenchon Frantzia Intsumisoaren hautagaiak. VI. Errepublikara igarotzeko bide orria izan zen bere hauteskunde programaren ardatz nagusietako bat. Asanblea Eratzaile baten aldeko apustua eginez Legebiltzarraren boterea indartuko lukeen sistema baterako trantsizioa zehatz-mehatz irudikatu zuen Presidentetzarako hauteskundearen atarian. «Ni presidente banaiz, populuak botere osoa berreskuratu dezan V. Errepublika bertan behera utziko dut». Lerroburu horrekin laburbildu zuen bere engaiamendua. Taulategi politikoaren bertzetik, Marine Le Penek erreferenduma bilakatu zuen, garai berean, salmenta politikorako lanabes preziatuena. Hala, frantses Estatuak Europar Batasunarekin behar lukeen harremanari bu-

ruz erreferenduma proposatu zuen eskuin muturraren hautagaiak. Handik aurrera, besteak beste, migrazio politikaren gaineko erabaki markoak boto-emaileen esku uztea proposatu zuen aurreko Presidentetzarako hauteskundeetako bigarren itzulian Emmanuel Macron parez pare ukan zuen Marine Le Penek.

Alderdirik gabeko hautagaiak sekulako aldearekin irabazi zituen bai Eliseorako bozak bai handik hilabete batera egin ziren legegintza-hauteskundeak. Bozketaren emaitzak eztabaida ezina bazirudien ere, «populuaren erabakimena» erdigunean ezarri zuen handik hilabete batzuetara kaleak sutan jarri zituen Txaleko Horien mugimenduak. Herri Ekimenaren Erreferenduma (RIC, frantsesez) gizartearen ezinegonak arta-

Apirilaren 10ean eta 24an iraganen diren Presidentetzarako bozak formalitate hutsa bilakatzeak demokraziaren hustuketa azkartzeko arriskua ekar lezake

tzeko botika gisara defendatu zuen ezker-eskuin banaketa klasikoa airean jarri zuen bizitza kostuari loturiko ezlandak, jada agortzeko sintomak zituen sistema zaintza intentsiboetan jarritik. Mundua astindu zuen pandemia heldu zen ondoren eta, birusaren aurkako gerra aldarrikatu zuen Macronek berdin heldu zion hauteskunde egutegiari, abstentzioaren gorakadak larri gaixo zegoen ereduari sor ziezazkiokeen albo kalteak gutxietsita. 2022ko bozen atarian, Errusiak sugarren gainean erregaia bota zuenean Ukrainan EBko diplomaziako buru bilakatu zen jada botere orogile hobedun zen presidentea. Propaganda tresna duen gudak hauteskunde jardura kasik «enpatiarik gabeko» ekimen bilakatu du. Eztabaidarik ez, kanpaina formala erdi itzalita, bi itzulien sistemak berak ez al du existitzeko zuen azkeneko arrazoi galdu? •



# NASAK, KITXUAK ETA EUSKALDUNAK, MINEZ ETA ITXAROPENEZ, ELKARRI BEGIRA

Julen Larrañaga eta Rosa Elizburu - GARABIDEko kideak

Kolonbiako nasak, Ekuadorreko kitxuak eta euskaldunak. Hizkuntzaren, kulturaren, lurraren gaineko hiru begirada desberdin eta antzeko, elkarrengandik zer ikasi badutenak. Garabidek antolatuta, Kolonbiako Toribio herrian zuten hitzordua, elkarrekin ikasten segitzeko. Miller Correa Toribioko autoritate nasaren erailketak ilundu zuen hitzordua. Minez, baina argia ikusten jarraitzen dute han, bidearen segidan.

**U**rduri esnatu gara martxoaren 14ko goizean. Garabidetarrak Kolonbiako nasa lurraldeko Toribio herrian gara, nasekin batera. Ekuadorreko kitxua herriko 30 kidez osatutako komitiba bat Toribio bidean dago esnatu garenerako. Autobusean 18 orduko ibilbidea dute kitxuek Toribioraino iristeko. Gertu daude geografikoki bi herriak. Euren hizkuntzak biziberritzeko lanetan, elkarlana eta batasuna dute helburu.

Azken hamarkadan hainbat formazio eta proiektu gauzatu dira nasa yuwe hizkuntza biziberritzeko asmoz, Garabide elkarteak nasa erakundeekin batera antolatuta eta Gipuzkoako Aldundiak eta Durangoko Udalak lagunduta, besteak beste. Kitxuekin ere –kitxua hizkuntza biziberritzeko prozesua sendotzea oinarri-formazio sakon bat antolatu zuen iaz Garabide elkarteak kitxua elkarteekin Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak hauspotuta. Formazio horren testuinguruan, kitxua aktibistek hizkuntza eta kulturaren aldeko proiektu ezberdinak jarri dituzte martxan. Proiektu hauetan lanean ibili diren kide eta autoritateak datoz Toribiora, nasa lurraldean azken hamarkadan izaten ari den biziberritze prozesua bertatik bertara ezagutzera.

Asko hazi da nasa yuwe hizkuntzaren biziberritze prozesua azken urteetan. Nasen aurkako bortizkeria testuinguru baten erdian, nasa yuwe hizkuntzan oinarritutako murgiltze ereduko hainbat eskola zabaldu, helduen irakaskuntza eta alfabetatzean trebatu, paisaia linguistikoa landu, itzulpen eta interpretazioari ekin eta hainbat eta hainbat material kultural eta didaktiko sortu dituzte nasek, beste hainbat ekimenen artean. Prozesu hori ezagutu eta haiena konpartitzera datoz kitxuak Toribiora.

Urduri gaude, nasek pairatzen duten bortizkeria dela-eta, kitxuak egun argiz iristea komeni delako,

mugan arazo asko izan baitituzte. CRIC erakunde indigenako bizitzaren eta giza eskubideen defentsako bulegoaren arabera, 2022. urtean pasatutako hila-bete eskas hauetan 24 kide erail dituzte Cauca departamenduan, eta horietatik 14 Ipar Cauca eskualdean, Toribio dagoen lurraldean alegia.

Ekuadorrek Kolonbiarekin duen mugan izandako arazoak tarteko, asko berandutu da kitxua kideen iritsiera ordua; gaua izango da nasa lurraldean sartzen direnerako. Dena den, aurretik

adostu moduan, kitxuak nasen lurraldean seguru sartu daitezzen nasa autoritate eta guardia indigenako kideak eskolta lanak egitera abiatu dira nasen lurraldean sartu direnean. Bidaiaren azken txanpa besterik geratzen ez zaie, kitxuen autobusa, ez aurrera ez atzera, mugitu ezinik geratu da. Zubi baten sarreran dago autobusa kateaturik, azken egunetan izandako euriteek eragindako luizi baten ondorioz. Gaueko hamabiak pasatu diren arren, azkar antolatu dute nasek 30 kitxuak Tori-

Astebeteko egonaldia egun batera mugatu behar izan zuten Millerren erailketa tarteko. Irudiotan, topaketaren zenbait une. GARABIDE





biora igotzeko modua. Ez daude prest lehen eragozpenean bi herrien artean eraikitzen ari diren zubi hau bertan behera geratzeko. Hiru lau kotxe lortu dituzte eta abiatu dira bidearen prekari-tateak mugitu ezinik utzi dituen kideen bila. Goizaldeko hirurak dira azken kitxuak geletan sartu direnerako.

Martxoaren 15a kolpe latz batekin esnatu da. Miller Correa, Toribioko autoritate nasa eta ACIN elkarte indigena probintzialeko kontseilaria, erail dute Popayan hirian goizaldean. Aguilas Negras talde paramilitarrak sinatutako mehatxuzko panfleto batean agertu zen bere izena joan den astean. Ezaguna zen Miller garabidetarrantzat, 2018 eta 2020 urte bitartean Toribioko Nasa Proiektua Bizi Planaren koordinatzaile nagusia izan zenean, Garabide elkarte-kideekin batera hainbat batzarretan elkarrekin egonak baikinen.

#### BORROKAN SEGITZEKO IRMOTASUNA

Berriak eragin duen paisaia mingarria da. Nasa adiskideen gorputzaldia ikusteak samina eragiten du, noraezean dabilta hainbeste basakeria nola digeritu ez dakitela. Kitxuak eta euskaldunak ere nola jokatu ez dakigula gaude, bihotza uzkuertzerainoko amorrua sentituz eta nasa adiskideei lagundu nahi eta ezinak sortutako inpotentzia gainetik kendu ezinik. Hala ere, harritzekoa da nasekin hitz egiterakoan borrokan segitzeko erakusten duten irmotasuna.

Egoeraz honela mintzo da Echi Teran nasa hiztuna –kronika honetan parte hartu duten nasek izen faltsu bat erabili edo ez dute izenik agertzea nahi izan horrek dakarren arriskuagatik–: «Gure prozesuari asko eragingo dio. Baina ez du esan nahi geldi geratuko garenik, ezta gutxiagorik ere. Borrokak beti jarraituko du, hizkuntza eta kultura babestuz, baina baita lurraldea eta bizitza ere. Herri indigena bezala markatzen gaituzten egoerak dira. Kitxua senideak asko harritu dira testuinguru hau ikusita. Zer pentsatu handia ematen du, lanean segitzeko asko dago. Samina eta mina sentitu arren, indar gehiagorekin jarraitzen dugu prozesu hau aurrera ateratzeko».



Irudiotan, nasak, kitxuak eta euskaldunak elkarrekin lanean, esperientziak eta ekimenak partekatzen. Hizkuntza eta kultura txikien jabe eta defendatzaile izatea partekatzen duten tasuna da.

GARABIDE

**«Senidetze horretan lanean ari ginen iaiztik, eta kitxua senideak hemen edukitzeko prestatzen ari ginen. Itxaropen handia genuen kitxuek dituzten esperientziak partekatzeko eta guk ere nola lan egiten dugun erakusteko»**

**Hasierako amorrua eta inpotentzia eraldatuz doaz elkartrukeak aurrera egin ahala. Ez Millerren erailketa presente ez dagoelako, baizik eta hasierako samin hori harrotasun eta konbentzimendu bilakatzen ari delako**

Gosaldu aurretik autoritate nasekin hitz egiteko aukera izan dugu. Kitxua eta nasen arteko esperientzia trukaketak bertan behera geratu beharra dauka eta kitxuek nasa lurraldetik atera behar dute berandu baino lehen. Komunitate osoa Millerren gorpua jaso eta bere lurperatzean inplikatu da eta halako egoera batean zentzu askorik ez du aste osorako genuen agendarekin segitzeak. Horrez gain, egoerak zer norabide hartuko duen ez daude ziur agintari nasak. Aurreko igandean izan ziren Kolonbiako hauteskundee-tan uribismoaren gainbehera sumatu daiteke eta agertoki berria zein izango den ez dago argi oraindik. «Este gobierno va a morir en estas elecciones. Pero va a morir matando», diosku Toribioko

nasa lagun batek. Testuinguru honetan 30 kitxua Toribion mantentzea ez da segurua eta kitxuak bertatik ateratzeko erabakia hartu dugu nasa, euskaldun eta kitxuen artean.

Bihar aterako dira kitxuak, helmuga zein duten oso garbi ez badaukagu ere. Hala ere, Toribion pasatuko duten eguna aprobetxatzeko erabakia hartu dugu eta nasen eta kitxuen arteko topaketa mantenduko da, egun bakarrekoa izango bada ere.

Lan handia zegoen proiektu honen atzean eta baita ilusioa ere. Topaketa hauek antolatzeke lanetan ibili den nasetako batek, Lena Mezquisuk, adierazi du zegoen itxaropena: «Topaketaren zain geunden, garrantzitsua zen guretzat. Senidetze horretan lanean ari gi-





nen iaztik, eta kitxua senideak hemen edukitzeko prestatzen ari ginen. Itxaropen handia genuen kitxuek dituzten esperientziak partekatzeko, eta guk ere nola lan egiten dugun haiei erakusteko. Kitxua herria hizkuntza galtzeko arazo eta kezka berberak dituen herria da».

#### **GALERA ETA KOLPEA PROZESURAKO**

Urgentziazko bilera bat antolatu eta egunean zehar landuko dugun agenda antolatu dugu denon artean. Bitartean, eskolak bertan behera utzi dituzte nasek –topaketa hezkuntza erakunde batean dago antolatuta– eta ikasle guztiak areto nagusirantz doaz. Hamaikagarren aldiz kontatu beharko diete haurrei haietako bat eraila izan dela; komunitateko liderra izateagatik eta izandako konpromisoagatik beste kide bat galdu dutela. Millerrek egindako lanarekin segitzeko irmotasunezko oihuak entzuten dira aretotik, irakasle eta ikasleen partetik. Aretotik datozen oihuen irakurketa berdina egiten du Lenak: «Galera handia da, eta aldi berean kolpea prozesurako. Politikoki ahuldu egiten gaitu, oso pertsona garrantzitsu batek utzi gaitu. Miller orain gurekin ez dagoenez, irakaskuntza bat

utzi digu, ikasgai bat, erresistentzia eta borroka bide honetan jarraitzeko oso garrantzitsua den irakaskuntza bat. Uste dut irakaskuntza hori batasunean lan egitea dela, ez zatitzea. Prozesu hori indartzeko aukerak bilatu behar ditugu eta nondik gatozen ez ahaztu».

Ia eguerdiko 12.00ak dira topaketa hasi dugunerako. Ongietorri ofiziala eman digute nasek, kantuz. Zenbat gauza esan ditzakeen nasa yuwezko kantu bakar batek. Orduak pasatu ahal, topaketaren giroa aldatuz doala sentitzen dugu. Hasierako amorrua eta inpotentzia elkartrukerak aurrera egin ahal transformatuz doaz. Ez Millerren erailketa presente ez dagoelako areto honetan, baizik eta hasierako samin hori harrotasun eta konbentzimendu bilakatzen ari delako. Ekuadorreko proiektuaren arduraduna den Janeth Otavalok kitxuek nasekiko sentitu duten begirunea adierazi du: «Lurralde nasan, liderrak hil eta hala ere borrokan jarraitzen dutela ikusten dugu. Inpaktu handia izan du horrek guregan, eta indarra ematen digu jarraitzeko».

Elkarri begira ari dira bi herriak, eta euren hizkuntza eta kultura biziberitzeko apustu sendo horretan segitzeko irmotasuna erakusten dute. Gustura

ari gara elkartruketa bukatzen, giro onean, sentimenduak bor-bor daudela.

Antzeko irakurketak egin dituzte elkartruke honi buruz Janeth Otavalok eta Echi Teranek. Harreman honekin segitzeko apustua egin du Janethek aurrerantzean ere: «Egon garen denbora urria izan arren, garrantzitsua izan da partekatze hori, eta batez ere presentzialki elkarrekin egotea eta herri senidea ezagutzea. Lotura estuagoa ematen digula uste dut, indarra ematen digu elkarrekin lanean jarraitzeko Ekuadorrera bueltatzen garenean». Antzeko hitzak darabiltza Echik eta egunak bi herrirentzako izan duen garrantzia azpimarratu du: «Oso garrantzitsua izan da beste herriarekiko senidetzea. Senidetze honek ahalbidetu digu nola gauden aztertzen. Nasa herriarentzat esperientzia esanguratsua izan da, elkarren arteko antzekotasun asko baititugu. Nasa eta kitxua herriak sendotzen lagunduko digu, baina baita Kolonbiako gainerako herri indigenak ere. Gauza asko geratu zaizkigu zintzilik, baina prozesu honekin jarraitu beharra dago».

Topaketa hauetan testigu pribilegiatuak sentitu gara garabidetarrak. Bi herrien arteko zubi honen eraikuntzaren lehen pausoen lekukoak. Millerren heriotzak markaturiko senidetze bat. Luz Maisa Chavez Cordovak, ume eta nerabeei begirako kitxua udalekuetako antolatzaileetako batek, hausnarketa hau utzi du: «Gertatu denak, nolabait, bide hau gehiago zabaltzen lagunduko digula sentitzen dut, haratago begiratzen lagunduko digu».

Nasa eta kitxua herriek naturarekin harremana duten metafora ugari erabiltzen dituzte eguneroko mintzairan. Nasek ez dute Miller ehortziko, erein egingo dute. Azken ordura arte aprobetxatu nahi izan dugu eguna eta gaueko haia maikak dira lotara goazenerako, azken dantza eta kanten oihartzunak entzuten direla. Susmo batekin goaz lotara. Krisiari krisia gailenduko zaiola dirudien mende honetan, nor izaten segitzeko borrokan euskaldunok itsasoaren ertz honetan bakarrik egongo ez garen susmoa. Izan hazi, Miller. Gudan hazi.





Hector RETAMAL | AFP

## IKUSMIRA

# COVID-19A SORTU ZEN TXINARA ITZULIKO OTE DA IZURRITEA?

Mendebaldean, ehunka mila hildakoren ostean eta bi urteetako pandemiaren gestio erratikoaren ondoren -gaur etxean konfinatuta, bihar denok kalera-musukoa noiz kenduko irrikatzen gauden honetan, Txinak tinko eusten dio "0 kutsatze" leloari. Horrela, 25 milioi biztanle inguru dituen Shanghai hiria, erraldoi

asiarraren populatuena, ia guztiz isolatu du. Pekineko agintariak harro daude kutsatutako oso gutxi egon direlako, artean hildakoak gutxiago, eta aspaldian eraginkortasun ekonomiko eta soziala ideologikoaren gaineratik jarri zuen Alderdi Komunistak Mendebaldearekin alderatuz agertu duen efizientzia aldarrikatu du. Kontua zera da, gaitzak jotako hain txinatar gutxiarekin ez duela talde immunizaziorik lortu eta txertaketa eta isolamendu kanpainak ditu pandemiari aurre egiteko neurriak. Ez ote den azkenean covid-19 izurritea sortu zen Txinara bertara itzuliko pandemia, bumerana balitz bezala. Horren beldur dira hango adituak. *Dabid Lazkanoiturburu*



# GAZAN SEGURTASUN BILA

## Viktoria eta Ibrahimek, Ukrainako gerratik ihesi, Gazan bilatu dute babes

 JENDARTEA / GAUR8

**U**krainatik ihes egitera behartuta, Viktoriak eta bere senar Ibrahimek hautu zaila egin behar izan zuten: alde egin, bai, baina nora? Haien erabakiak azkar asko eraman zituen senarraren herrialdera, Gazara, gerra giroa urteetan pairatu eta Israelen etengabeko eraso eta blokeoaren zigorra jasaten duen enklabe palestinarra.

Vinnitsia herrian jaioa, Kieven hegoaldean, 200 kilometrorora, Viktoria Breijek 21 urte zituen eta Farmazia ikasten ari zen Ukrainako hiriburuan Ibrahim Saidam, 23 urtekoa, aurkitu zuenean.

Saidam Bureijekoa da (Gazako errefuxiatu kanpaleku bat), eta Medikuntza ikasten ari zen. Elkar ezagutu eta bi urtera ezkondu egin ziren.

Otsailaren 23an hasitako inbasioaren ondoren indar errusiarrek aurrera egitean, bikote gazteak Kiev uztea eta Vinnitsiara itzultzea erabaki zuen.

Baita ere, otsailaren bukarran, maletak egin eta, beste milioika pertsonak bezala, Ukrainatik ihes egitea. Herria ere ez zen segurua. Eta egoera beldurgarria zen.

«Ohartu ginen ez genekielako hurrengo egunean zer gertatuko zen. Egunetik egunera hildakoen eta zaurituen kopurua gora zihoan», azaldu du neska gazteak.

Vinnitsiako aireportuan berderatzitako pertsona hil zituen Armada errusiarren bonbardaketak martxoaren 7an, Ukrainako agintarien arabera. Erasoak etxe ondoan zituzten jada.

«Senarrak eta biok Ukraina baino toki seguruagoa aurki-

Nora eta Gazara joatea erabaki dute Viktoria Breij eta Ibrahim Saidam gazteek, gerratik ihes egin eta segurtasuna bilatzeko asmoz. Kieven bizi ziren, eta han ari ziren ikasten Errusiaren inbasioa eta gerra hasi zenean. Gazako errealitatea ezagututa ere –Ibrahim palestinarra da– seguruago sentitzen dira familiaren eta ezagunen artean Europako erbestean baino.

tu behar genuen, eta bere herria aukeratu genuen, Gaza», azaldu du neska. Ezin izan dio negarrari eutsi eraso errusiarrek suntsitutako erai-

kinen bideoak bere telefonotan erakusten hasi denean.

«Lagunak eta familia han utzi genituen eta gutxi daki-gu beraietaz», adierazi du.

### UKRAINA BAINO SEGURUAGO

Minibus batean atera ziren Ukrainatik eta gero oinez abiatu ziren Errumaniarantz. Han hegazkin bat hartu zuten Kai-

roraino eta ondoren Egiptoren eta Gazaren arteko Rafah pasabidea zeharkatu zuten.

Gazan ere kezkatuta daude segurtasun faltagatik, baina gaur egun eskualde hau Ukraina baino seguruagoa dela uste dute.

Viktoria dio ezagutzen duela herrialde palestinar pobre eta txiki honen errealitatea, hamabost urtez israeldarren blokeoaren pean bizi dela eta Israeletik azken urteotan lau eraso handi jasan dituela, noizbehinka izaten diren beste bonbardaketek gain. Horri gehitu behar zaio Zerrenda gobernatzen duen Hamas mugimendu palesti-





nar islamistak ere erantzun egiten diela eraso horiei.

Azken gatazka nagusia duela urtebete baino gutxiago izan zen, 2021eko maiatzean. Hamaika egunetan, eraso israeldarrek 260 hildako eragin zituzten Gazan eta 14 Israelen.

Ordutik, egoera lasaiagoa bada ere, noizbehinka tentsioa igotzen da.

«Gerra bat izan da hemen, iaz, eta hori berriro has daiteke, baina Ukraina uztera behartuta izan garenean, Gaza segurua zen», adierazi du gazteak.

Saidamen esanetan, Vinnitsiako egoera beldurgarria zen, «suntsigarria», Israelen Gazaren aurka egindako erasoetan etxean zela bizi izan zuenaren antzekoa.

#### ETORKIZUNA KOLOKAN

«Ez dakigu zer gertatuko den bihar. Espero dugu eta erre gutzen dugu ahalik eta onena izan dadin», gaineratu du Viktoriak.

Gazte ukrainarra islamera bihurtu zen ezkondu ondoren eta hitz gutxi batzuk besterik ez du egiten arabieraz.

Ia 2.500 ukrainar daude gaur egun Gazan, Ramallahen (Zisjordania, Israelen 1967tik okupatua) dagoen ordezkari diplomatiko ukrainarraren arabera. Gehienak Ukrainan ikasi duten palestinar gizonen ezkonduak emakumeak dira.

«Hiru gerra bizi izan ditut Gazako Zerrendan eta horrek nolabaiteko eskarmentua eman dit», azaldu du Ibrahim Saidamek. Txukun orraztuta dago eta ukraineraz garbi hitz egiten du.

«Gerra hasi baino astebete lehenago, hornigaiak prestatu nituen. Baina ez genuen espero hain gogorra izango zenik», gaineratu du.



Viktoria Breij eta bere senarra, Ibrahim Saidam, Gazako Bureij errefuxiatuen kanpalekuan bizi diren senideen etxean. Aurreko orrialdean, bikotea euren pasaporteak erakusten. Said Jatib | AFP

«Europako herrialderen batera joan gintezkeen asiloa eskatzera, baina nahiago izan dut Gazara itzuli, hemen seguru sentitzen naizelako eta ohiturak ezagutzen ditudalako», azaldu du.

Hala ere, Medikuntzako langarren urtea ikasten ari den gazte hau emaztearekin Ukrainara itzultzeko irrikatzen dago, gerra bukatu bezain pronto, emaztearen familia ikusteko eta ikasketak bukatzeko.

Viktoria bere herria uzteko erabakia «zail samarra»

izan dela adierazi du, baina «lasaitasun moduko bat» sentitzen duela senarraren senideen artean egonik.

Aspaldian ezagutu nahi zuen bere familia politikoa baina ez zuen espero baldintza hauetan izatea.

Halaber, eskerrak eman dizkie bere auzo berriko biztanleei, eman dioten harrera beroagatik, eta Gazako zein Ukrainako «jendeak bizitza zoriontsu eta segurua izatea» espero du.

Gaur egun, senarraren familiaren etxean bizi da eta

ondo sentitzen da. Hala ere, ezin du adierazi zer-nolako beldurra eta izua sentitzen duen Ukrainan gelditu diren ahizparekin eta nebarekin hitz egiten duenean.

«Oraindik ezin dut sinetsi gertatu dena ametsa ez izatea, ikaragarria da. Amets egiten dut senarra eta biok etxera itzuliko garen egunarekin».

Ukrainan egindako inbasioaren ondorioz, Errusiak otsailaren 24an erasoaldi militarra abiatu zuenetik joan den asteartera arte, lau milioi pertsona inguruk utzi dute herrialdea, Errefuxiatuentzako NBERen Goi Mandatariaren (UNHCR) arabera. Beste hamar milioi pertsonak utzi dute euren etxea, eta Ukraina barruan mugitu.

Bestalde, hildako zibilak 3.039 izan dira, Giza Eskubideen NBERen Goi Mandatariaren Bulegoak (OHCHR) emandako datuen arabera.

**«Europako herrietara joan gintezkeen asiloa eskatzera, baina nahiago izan dut Gazara itzuli, hemen seguru sentitzen naizelako eta ohiturak ezagutzen ditudalako»**

**Ia 2.500 ukrainar daude gaur egun Gazan, agintari palestinarren arabera. Gehienak Ukrainan ikasi duten palestinar gizonen ezkonduak emakumeak dira**





**Saioa Aginako Lamarain**  
Psikoterapeuta

## Merezi duzu

**L**anean erantzukizun handia edo estres maila handia duten pertsonentzat zaila izan daiteke denbora libreaz gozatea. Gero eta gehiago kezkatzen gara gure egunak bengan emankorrek ote diren. Horregatik, gero eta jende gehiagok ikasi behar dugu lanetik deskonektatzen. Izan ere, askotan, zaila da astegunetan egiten dugunetik deskonektatzea. Atsedena hartzeko ezintasuna duten pertsonak daude; are gehiago, ezer ez egiteak eta soilik izatera eta egotera mugatzeak antsietatea sortzen die. Asko dira beren izaera aktiboagatik beti mugimenduan egoteko beharra dutenak, gauzak asmatzen, sortzen, planeatzen... Halere, bada kontuan hartu beharreko beste alde bat. Ezer ez egitea beharrezkoa da, osasungarria ere bai. Irakurtzeak, paseatzeak, atsedena hartzeak, elkarrizketa onak izateak eta paisaiak gozatzeko esanahiz betetzen dute ezer ez egitea. Halere, jarduera horiek antsietate handia eragiten diete pertsona askori. Denbora librerik gabeko pertsonen, beti zereginen bat dutenek, ez dakite zer den erlaxatzea.

Lanpetuta egotea normala den bizimodu batean txertatuta gaude. Horrekin, aisialdiaz gozatzeko ezintasuna normalizatzeaz gain, antsietate egoeren oinarriak finkatzen ditugu. Oraindik oportetan dauden pertsona batzuek mila zeregin bilatzen dituzte. Hori egitean, berriz ere gai sentitzen dira, baita emankorrek ere. Horrela, okupatuta nahi gaituen gizarte eskatzaile honekin bat datozela ikusten dute.

Oporrak beharrezkoak eta merezi-takoak dira. Erantzukizunaren eta estresaren deskarga horrek, egun batzuetan, gure garuna erlaxatzea eta

bere egoera naturalenera itzultzea ahalbidetzen du. Horrela, indar fisiko eta mentala berreskuratzen dugu hurrengo lanaldiari aurre egiteko. Eguneroko errealitate horretatik deskonektatzeko denbora ondasun handia da gure osasun mental eta ongizatearentzat. Eguneko unerik batean ezer ez egitea oso onuragarria izan daiteke. Ez da itxaron behar oporrak izan arte lasaitasun eta gelditasun une horiek ahalbidetzeko.

**Min handia hartzen dugu gure burua denbora guztian aktibo egotera behartzean, inolako denbora librerik gabe.** Esan bezala, ondorioak geroago ikusiko dira, eta geroago jakingo dugu ez zuela merezi. Gure proiektuei edo gure helburuen alde

lan egiteari denbora eskaintzea oso positiboa bada ere, hori ez da dena. Garrantzitsuena ere ez da. Sakrifizio jarrera horri uko egiten diogunean bakarrik lortzen dugu guretzat denbora gehiago izatea, errealitatea aztertzeko ikuspuntu berri bat irabaziz.

Zuretzat denbora gehiago izan nahi baduzu, lehenetsua ematen hasi behar duzu. Hau ez da bakarrik zereginak garrantziaren arabera ordenan antolatzea, baizik eta zure denbora pertsonalari merezi duen lekua ematea. Ez da ezer gertatzen. Ez duzu horregatik gaizki sentitu behar. Merezi duzu. Lanik egin behar ez duzunean estresetik askatzen ez bazara, noiz egingo duzu? •

saioaaginako@gmail.com



Ezer ez egitea beharrezkoa da, baita osasungarria ere. GAUR8



{ asteari zeharka begira } Iñaki Altuna

# Korrika amaitu ostean pausoz pauso segitzeko

**B**adabil Korrika Euskal Herrian barrena, herriz herri, geratu gabe. Korrika berezia da aurtengoa, batek baino gehiagok inoiz ez dela Korrika “arruntik” egon esango badu ere. Korrika bakoitzak izan baitu bere berezitasuna eta bakoitzean testuingurua ez baita inoiz nolana hikoia izan. Seguru asko, Korrikaren historiari erreparatuz azken hamarkadotan Euskal Herrian bizitako garai ezberdinen kontakizuna egin daiteke.

Herri gisa, euskararen biziraupen goseak bultzatuta herri mugimendutik sortu zen Korrika, eta nahi baino lehenago garaiko konfrontazioarekin egin zuen topo. Boikota ere pairatu zuen Ajuria Eneko Hitzarmena erdiesteko eta garatzeko irizpideak indarrean zeudenean, 80ko hamarkadatik 90eko hamarkadako ibilbidean. Geroztik, Korrikak adostasun zabala lortu du, ia erabatekoa eremu eta erakunde gehienetan, euskararen kontrako herra ezin ezkutatu ari direnak oraindik badiren arren, Iruñeko alkateak erakutsi berri duenez, Korrika Txikiei ere eragozpenak jarritz.

Oraingoan, bistan da, pandemiak markatuta dator, 22. edizio hau berez zegoen garaian bertan behera uztera behartu zuelako eta une honetan jendeak gogo bizia izango duelako bideak eta bide bazterrak betetzeko, kale giroa pizteko. Aste honetan, sare sozialetako mezu batean Iker Bizkarguenaga gure lankideak herritar askoren gogoia laburbildu du oso hitz gutxitan: «Sargorian ekaitzak bezala blaitu gaitzala».

## TXIKITASUNEAN

Azken boladan, pandemiaren atzetik, elkar loturik dauden mundu mailako beste krisi batzuek egin dute eztanda, Ukrainako gerra dela-eta, lehengaien faltagatik zein prezioen gorakadagatik etorritako estutasunak direla-eta. Ziurgabetasuna da nagusi, eta gure txikita-

suna are txikiagoa egin da mundua puntaz punta aztoratzen duten astinaldi hauekin. Horregatik, beharbada, ditugu hain garrantzitsu Korrika bezalako ekimenak, etxeko lehentasunak eta oinarriak gogoratzeko, indarberritzeko. Olatu handiek itsasontzi txikiak ez irensteko arreta jarri beharra baitago. Gure herriaren nortasuna eta euskara ere zaintzaren beharrean daude.

Tradizio handiko ere bihurtu zaigu Korrika bere 22. honetan, baina egin ohi den bakoitzean birsortzen den ekimena dela esan daiteke. Freskotasuna dario. «Urdu-ri nago; nire lehenbiziko Korrika da, bale?», irakurri diot gazte bati sare sozialetan aste honetan. Ez dago, ez, herdoilduta Korrika. Belaunaldi berriak gehituko dira oraingoan ere karrerara, errepidean barrera aurrera egingo duen suge koloretsura.

Tradizio handiko ere bihurtu zaigu Korrika bere 22. honetan, baina egin ohi den bakoitzean birsortzen den ekimena dela esan daiteke

Hamar egunez harago, alabaina, mota honetako ekimenek etorkizunera so egiteko balio behar dute. Hausnartu beharra dago, garaiak aldatu direlako eta hainbat kontu birpentsatu beharko direlako; eta egin beharra dago, hizkuntza politika oso eta eraginkor bat indarrean jartzeko urratsak egin behar direlako. Hezkuntzaren eztabaida dugu oraintxe pil-pilean. Beste eremu batzuetan ere gogoeta beharrezkoa izango da. Adibidez, gurean, hedabideen eremuan.

Oraindik ez dakigu Korrikaren lekukoak zer mezu daraman eskuz esku. Donostiako amaieran irakurriko dute datorren asteburuan, berriro ere ekarpena egiteko. Orduan, berriro aurrera begiratzeko garaia izango da, pausoz pauso segitzeko, indarberriturik. •



# IRUÑEKO BIHOTZEAN

## Arturo Campion euskaltegiak 50 urte bete ditu Iruñea euskaldunago batean

📁 EUSKARA / Xabier Izaga Gonzalez

**B**errogeita hamar urte Iruñeko eta iruindarren bihotzean, ha- maika oztopori aurre eginda, ehunka ahotatik euskara jaria- razten, une latzak eta pozga- rriak partekatzen... Mende er- diko historia du gainean Arturo Campion euskaltegiak, eta gogotsu jarraitzeko asmoa.

«1970eko hamarkadako ur- teak zailak, gatazkatsuak ziren, baina gizarte bor-bor zegoen, gauza asko egiteko ilusio han- diz arlo guztietan, eta euskara- ren irakaskuntza ez zen sal- buespena», gogora ekarri du Jokin Lasa Iruñeko euskaltegi horretako irakasleak. Ordu ar- te oso jende heldu gutxik ikas- ten zuen euskara, «euskaldun zaharrak zeuden, etxetik ikasi- takoak, baina oso jende gutxik ikasten zuen, eta urte haietan fenomeno interesgarri bat sor- tu zen, gau eskolak. Jendea, be- re lanaldia bukatutakoan, arratsaldeko zortzietan-edo sekulako ilusioarekin biltzen zen euskara ikasteko».

Artean ez zen 'euskaltegi' hi- tza erabiltzen, eta «Arturo Campion 'akademia' izen kla- sikoagoarekin sortu zen».

### HISTORIA

Akademia zen, beraz, baina zergatik Arturo Campion? «Po- litikari eta idazle garrantzitsua izateaz gain, handitan euskara ikasi zuen lehenengo euskal- tzaletzat jotzen da; horregatik pentsatu zuten izen egokia ze- la beren proiekturako».

Orduan Iruñean ez zen eus- kararik entzuten, mendialde- tik joandakoei izan ezik. Han- hemenka baziren hainbat talde gau eskoletan bilduta, elizaren lokaletan, parrokia zentroetan, edo eskola erlijio- soetan, «bitxia gaur egungo

Ospakizun ikasturtea du Iruñeko Arturo Campion euskaltegiak. Badu zer ospatu, zer deitoratu eta betiere zer gogoratu, hasierako ilusioarekin aurrera egiteko. Urteurrena dela-eta argitaratu duten liburua aurkeztu dute, baita dokumental bat ere, baina ospakizunek ikasturte amaiera arte eta ondoren ere jarraituko dute.

ikuspegitik». Herri ekimenak ugaritzen ziren eta gazte bat- zuek Iruñean, Iruñerri osoan euskararen egoera benetan pe- nagarria zela ikusita, pentsatu zuten beharrezkoak zirela tal- de horiek, baina jendea saka- banatuta zegoela, eta akade- mia bat sortzea erabaki zuten, «egoitza finko bat». Hala sortu zen euskara ikasteko Euskal

Herriko lehenengo egoitza fin- koa, Mendigorriko emakume alargun bati Compañia kaleko pisu bat alokatuta.

Egoitza hura txiki geratu zen luze gabe eta bigarren pisu bat alokatu behar izan zuten erai- kin berean. Izan ere, urte haie- tan oso handia zen jendearen jakin-mina eta jendetza bil- tzen zen euskara eskoletara.

«Batzuk txintxo-txintxo eus- kara ikasteko asmoz joaten zi- ren eta beste batzuk ezagutze- ko besterik ez, ekarpentxo bat egite aldera, eta batzuek lan politikotzat hartu zuten».

Gau eskola edo euskaltegi kopurua handitzen joan zen eta guztiak koordinatu beha- rra sumatu zuten. Horrela sor- tu zen AEK, eta koordinakunde horretako kide izan zen Arturo Campion, 1989a arte.

Urte batzuk igarota, Compañia kaletik Comedias kalera al- datu zen euskaltegia, «Iruñeko bihotzera».

1989an, Arturo Campionek, beste hainbat euskaltegiarekin batera, IKA sarea eratu zuen, eta koordinakunde horretan jarraitzen du. «IKAk beste bi euskaltegi ditu Iruñerrian, Ba- rañainen eta Atarrabian, eta Leitzaldean, Bortzirietan eta Malerrekan ere hedatuta da-

1984-85 ikasturteko irakasle taldea. Arturo Campion IKA





go». Gutxieneko koordinazioa daukate euren artean, «batez ere ildo metodologikoari dagokionez eta udako barnetegiak kudeatze aldera, edo administrazioen aurreko jarrera, erreibindikazioak eta abar bideratzeko». Gainerakoan, euskaltegi bakoitzak modu autonomoan funtzionatzen du.

#### BILAKAERA METODOLOGIKOA

Metodologiari dagokionez ere, bide luzea egin du Arturo Campionek. Hasierako urteetan metodo gramatikal estrukturala erabiltzen zuten: hiztegia ikasi eta hiztegi hori ikasitakoan esaldiak osatzea, idatzaraztea. «Ondoren, beste pauso bat eman zen eta hain famatua izan zen metodo audiolinguala etorri zitzaigun, kasete zoragarri haiek. Entzun eta errepikatu egiten ziren».

Metodo hura ere zaharkituta geratu zen urteen joanean eta 80ko hamarkadan «hizkuntzak ikasteko bidea komunikazioa zela ikusi zen. AEBetan eta Ingalaterran abian zegoen metodologia zen eta guk, eta beste batzuek, ekarri genuen. Taldeak sekulako garrantzia zuen, taldekideen arteko solasaldien bidezko metodoa zen; entzun bai, baina sortu ere egin behar zen».

Azken urteotan, fokuratzeko komunikatiboari eusten diote, baina betiere proiektu bat helburu dutela, «helburu erreala edo fikziozkoa; esate baterako, txango bat antolatu nahi dugu eta erreala balitz bezala antolatzen dugu, eta batzuetan erreala da».

#### HERRITIK SORTUA

Arturo Campion herri ekimeko euskaltegia da. Horixe nabarmendu nahi du Lasak: «Hemendik pasatu egiten da jendea, bai ikasleak, bai irakas-



leak, bagatuz eta bagoaz, baina hemen gauden bitartean, denok osatzen dugu euskaltegia. Jendeak, jendarteak sortua da. Batzuetan nahasmena sortzen da horrekin. Batzuek diote Gobernuak sortua dena publikoa dela eta gurea pribatua. Baina zer-nolako pribatutasuna, galea ekonomikoak dituen ekimena izanda! Ikasleek zoritxarrez ordaintzen dutenarekin eusten diogu, zoritxarrez oraindik ordaindu behar baitute; horrekin

Jokin Lasa irakaslea,  
Arturo Campion euskaltegian.

Jagoba MANTEROLA | FOKU

eta Nafarroako Gobernuak ematen digun dirulaguntzarekin funtzionatzen dugu. Herriatik sortutako ekimen bat gara».

Urte hauetan guztiotan administrazioekin izan duten harremana «adeitsua bai, baina inoiz ez da ona izan. Garaian garaiko gobernuak ez gaitu inoiz aintzat hartu, ez du baloratu euskaltegiek, bai guk bai AEK-k egingako lana. Gu administrazioa iristen ez den tokira iristen gara, bai geogra-

## «BERROGEITA HAMAR URTE, 11 ISTORIO»

“Berrogeita hamar urte, 11 istorio” liburuak Arturo Campion euskaltegiaren hainbat kontu eta pasadizo bildu ditu, 11 idazle kontatutako eta beste hainbeste egilek ilustratuak. Batzuk beteranoak dira, beste batzuk hasi berriak, baina denak ere, Jokin Lasak dioenez, «Iruñean nolabait izen bat dutenak». Esti Martinez Diaz de Cerio, Ane Ablanado, Ander Perez, Iker Tubia, Patxi Larrion, Peio Ardaiz, Reyes Ilintxeta, Alberto Ladron, Miren Epaltza, Elixabete Garmendia eta Xabier Olidenek idatzitako

testuak Josu Sanz, Asisko Urmeneta, Aritz Iri, Oier Zuñiga, Belatz, Oroz, Zaldieroa, Leire Urbeltz, Exprai eta Garazi Lasak ilustratu dituzte. Karrikirin, Katakraken, Elkar liburu dendetan eta Arturo Campion euskaltegian salgai dago 10 euroan.

Liburuaren izenburu bereko bideo dokumental bat ere egin dute, ia 50 urtean bildutako testigantzak, kontaketak, denetariko kartelak eta bestelako materialak erakusten dituena. Sare sozialetan ikusgai jarriko dute.

fikoki, bai ordutegiari dagokionez, baita ikastaro zehatz batzuei dagokienez ere».

Gobernuen hainbat jarrera ezagutu dituzte hainbeste urtetan: «Hau alde beltz dezentekoa da. Aurrekoak nire ustez ahalegin ikaragarria egin zuen duintze aldera; oso garai beltz batetik genduzen, UPNren garrantik jaso gabe egon ginen, bizirauten, eta hori hobetzea ez zen zaila; hala ere, aurrerapauso garrantzitsua eman zen. Oro har administrazioekin izan dugun harremana zaila izan da, ez duelako benetan gure lana behar den bezala balioetsi».

Lehen bezala orain ere itun bat eskatzen dute: «Ezin da utzi momentuko gobernuaren esku zer izanen den gure bizitzeko bidea. Zeren gerta daiteke orain bezala aritzea edo UPNren garaian bezala xentimorik ere ez ikustea. Hori erabaki politikoa da eta ez luke horrela izan behar».

#### BERROGEITA HAMAR URTE

Iaz, 50 urte betetzear, ikasturte honetarako «zerbait potente, deigarri, gogoangarria» egin behar zutela pentsatu zuten. Eta horretan ari dira.

Otsailaren 26an hasi ziren ospakizun ekitaldiak Iruñean hain kutuna duten txupinazorekin. Horretarako kiliki edo buruhandi bat sortu zuten, Arturo Campion irudikatzen duena. Harekek bota zuen txupinazoa. Egun berean, Kasu! taldeak urteurrenerako propio egingako kanta estreinatu zuen, euskaltegiko zenbait pasadizo biltzen dituena.

Martxoaren 5ean, musika, dantza eta clown ikuskizuna egin zuten Baluartan. Lau egun geroago, berriz, urteurrenari begirako “Berrogeita hamar ur-



te, 11 istorio» liburua aurkeztu zuten Laba espazioan.

Oraindik data eta toki zehatzik iragarri ez badute ere, euskal literaturan garrantzia duen liburu bat aukeratu eta irakurraldi bat ere egingo dute, goizean hasita egun osoan zehar.

Halaber, erakusketa ibiltari bat prestatzen ari dira hainbeste urtean egindako argazkiekin, matrikulazio kanpainetako karteekin eta askotariko materialarekin. Gaika antolatzen ari dira; esate baterako, ikasgelari, euskaltegiko festei, erreibindikazioei... dagozkienak, «horrekin badugu nahiko material, asko erreibindikatu behar izan baitugu», dio Lasak; hil diren lagunei ere argazki panel bat eskaini nahi diete, eta beste baten motiboa duela urte askotatik sanferminetan Alde Zaharreko lokal batean jartzen duten taberna izango da, bertan ehunka ikasle eta irakasle aritu baitira lanean. Denera dozena bat panelak osatuko dute erakusketa. Ekainaren lehen hamabostaldian Nafarroako Parlamentuan jarriko dute eta uda osoan zehar auzo elkarteetara, gazte guneeetara, peñaren batera... eramango dute.

Ekitaldi ugarien artean ez da bertso saiorik ere falta izango, noski. Maiatzaren 18an izango da bertsozaleen txanda, Iturrama auzoko festen egitarauaren barruan.

Azkenik, maiatzaren 21ean, Euskaltegiaren Eguna ekitaldi erabat ludikoa izango da. Urtero bezala, bazkari bat eta ondoren dantzaldia egingo dute ikasturte bukaeran, baina aurten goa, nola ez, berezia izango da. Goizean goiz hasita, euskaltegia sortu zen etxean plaka bat jartzeko asmoa dute; gero, erraldoien elkarretaratze bat izango da, musika lagun, eta



kalejira Gazteluko plaza edo «Iruñeko egongelan» bukatuko da, bertan izango baita ekitaldi nagusia, baina «inor aspertu nahi izan gabe»: rap kantari bat, bertsolari bat, jotari bat eta euskaltegiaren diskurtso txiki bat. Bazkalondoko giroa luzatu egingo bada ere, «parrandan segitu nahi dutenentzako» kontzertu bat izango da gauean.

#### GAUR EGUNGO EGOERA

Nafarroan gero eta euskaldun gehiago dagoela dio Lasak, gero eta haur gehiagok ikasten dutela D ereduan; hala ere,

**«Hemendik pasatu egiten da jendea, bai ikasleak, bai irakasleak, bagatoz eta bagoaz, baina hemen gauden bitartean, denok osatzen dugu euskaltegia. Jendarteak sortua da»**

**«Gu administrazioa iristen ez den tokietara iristen gara, bai geografikoki, bai ordutegiari dagokionez, baita ikastaro zehatz batzuei dagokienez ere»**

«Berrogeita hamar urte, 11 istorio» liburuaren aurkezpena, Laba gunean.

Arturo Campion IKA

ipar aldean, halako galera gertatzen ari dela, gazte askok ez baitute euskara erabiltzen. Bestalde, euskararen zonifikazioa ere ekarri du hizpidera: «Ez ditu nafar guztien eskubideak errespetatzen. Momentu honetan Parlamentuan ez dago hori aldatzeko gehiengorik eta administrazioak ez du behar bezainbeste baloratzen euskara, nahiz eta kanpainak egin».

Nolanahi ere, Iruñerrian arrerapen handia sumatu dute. «Duela 50 urte, baita 30 ere, oso zaila zen euskara kalean, tabernetan, gurasoek umeei egiten entzutea... Orain, berriz, D eredu dela, euskaltegiak dira, konpromiso eta esfortzu ikaragarrien ondoren, entzun egiten da. Hemen ez da galerarik izan». Horregatik, oso baikorra da. «Arturo Campion euskaltegiak horretan badu zirikusia. Hemendik milaka lagun pasatu dira; ez diot denek ikasi dutela, baina asko dira ikasi dutenak ere».

Euskaltegiko ikasle kopurua egonkortu egin da 200 ikasle ingururekin, euskaltegian bertan eta eskoletan, sindikaturen batean, enpresetan eta abarretan ari direnak kontuan hartuta. «Hona etortzen direnek ez dute titulurik nahi, oro har; ikasi, hitz egin nahi dute. Praktikatzen segitu nahi duten jubilatuek, edo gazteagoak, zortzi ordu lanean eman ondoren joaten direnak...».

«Guk ilusio handiz segitzen dugu. Badakit sekulako ilusioarekin sortu zutela euskaltegia duela 50 urte eta guk ilusio bertsuarekin segitzen dugu, etengabe gure formakuntza berritzen, beti nola hobeki irakatsi pentsatzen... Irakasle gazteak oso indartsu datoz, ideia berritzaileekin, eta 50 urte iraganik, noraino emateko gai diren erakusten ari dira. Horregatik bukatu nahi nuke esaldi ezagun honekin: 'Batzuk izan zirelako bagara eta garelako besteak ere izanen dira'. Katea ez da eten eta ez da etengo».





Unai  
GAZTELUMENDI

iRRITZIA: {



## Begien bistan dena ez da «dena»

**Antton Izagirre**

**G**ertatzen ari denaz inongo zalantzarik izan ez dezagun etxeko sukalderraino sartu digute gerra. Hortxe bertan gertatzen ari da, geure sutondoan. Erosotasunetik irten gaitezen eskatzen digute. Putin gaizto horrek gure ongizateari ere eraso omen liezaioke. Ukraina jo ondoren, barrura ere irits omen daiteke eta... kontuz!

Nonbait, errealitatea bat da eta bakarra. Ez dago beste aukerarik, mundua bitan banatzen omen da: lagunak eta etsaiak. Garbi omen dago Putin etsaia dela eta Biden laguna. Bai ala ez? Edo zer? Geure begiekin ikusten duguna, ez al da, ba, errealitatea? Argi dago, ez da hala?

Gogoratzen dut nola haurtzaroan edo gaztetxo izanik igande arratsaldetan herriko zineman ematen zizkiguten filmak ia beti azken borroka batekin amaitzen zirela. Zintzoen eta gaiztoen arteko borroka horretan hasiera batean zalantzak izaten nituen noren alde jarri, ez nuen ongi bereizten nor zen gaiztoagoa. Nire alboko adin bereko ikusleek argiago izaten zuten

eta oihuka eta txaloka hartzen zuten borrokatik irabazle suertatzea nahi zuten hura. Niri ere horrela erakutsi zidaten noren alde jarri. “Indio” eta “bakeroen” arteko borrokoak irabazi behar zuten. Txuri eta beltzen arteko borroka, berriz, txuriek. Eta horrela, pixkanaka errealitatearen jabe egiten joan nintzen.

Eskolan, historiako liburuetan erakutsi zidaten Atila basatia izan zela, bisigodoak ez zirela hain gaiztoak, feniziarrek gauza onak ekarri zizkigutela. Grekoek eta erromatarrek zibilizazioa; baina baskoiak ezin izan zituztela garaitu. Musulmanak bertakoekin nahastu omen ziren. Errege kristauak berriz lurraldeak birkonkistatzeko balorea izan omen zuten. Errege Katolikoa, lurraldeak batu Nafarroako Erresuma suntsituz. Karlistak eta liberalak, lagunak ala etsaiak? Mundu gerretan Aliatuak, lagunak? Espainiako gerran, Gernika bertakoek erre zutela sinetsarazi nahi izan zituzten. Konkistazaleak denak.

Gerora, lagunartean, frankisten eta haien sokakoen aurkako borrokaren alde

jarri ginen. Oraindik orain, gertatutakoaren errelatoa eraikitzen ari gara, nor gailenduko.

Peter Berger eta Thomas Luckman soziologoek “La construcción social de la realidad” liburuan garbi erakutsi digute, edozein delarik ere gure aurrean ikusten duguna, errealitate horren gaineko eza-gutza eraiki egiten dela. Kontua da nork eta nola eraikitzen duen.

Ukrainan izaten ari den gerra –ala operazio berezia da?– horretan, Putin etsaiaren gaiztakeriak begi aurrean erakusten dizkigute, bonba, txikizio, hildako, errefuxiatu, giza laguntzen... bidez.

Ematen ari diren errealitate horiei harrituraz begira gauden bitartean, Biden lagunaren kontrolpean beste errealitate ezkutua eraikitzen ari zaizkigu muturren aurrean. Botere ekonomiko nagusien interesen aldekoa, Europa militarizatua, kapitalaren eta gerra gizonen mesedetan.

Nire haurtzaroko filmetan bezala, aupada oihuak eta txaloak nori egin erakutsi nahi didatela jabetu naiz. •

## Denbora(z) bizi

**O**rdu aldaketa izan dugu berriz ere. Lehen gure eskuetako behatzekin iratzargailuetan eta eskumuturreko erlojuetan aldatzen genuena, izan orratz erlojua edo digitala (nire belaunaldiko nork ez du izan Casio bat?), orain, magia truko bat izango balitz bezala, gure mugikorrek eta tresnek bakar-bakarrik egiten duten ekintza da.

Aurreko astean ordu bat “kendu” ziguten, hau da, 02.00tan 03.00ak ziren. Hori ere ez al da magia? Denboraren hutsaltasunaz edo inexistentziatzat ohartu nintzen. Nora joan da nire bizitzako ordu hori?

Ba, ez dakit, baina ez nuen bizi izan eta ez dit inork azalpenik eman, zehatz azaltzen ez didaten bezala zergatik jarraitzen dugun urtean bitan orain ordu bat “kendu” eta orain ordu bat “eman” horretan.

Gauza da zer pentsatua ematen duela denboraren nozioa izateko eta denboraren balioa balioan jartzeko. Batzuetan, ordu bat oso luzea da egiten ari garena aspergarria delako, edo ez gaudelako nahi duguna egiten. Besteetan, azkarregi igarotzen da, gu konturatu gabe ia.

Ordulariari begira bizi garen gizarte honetan, orain hara eta gero ez dakit nora joan behar dugulako, beti azkar eta korrika, ez diogu kasu handirik egiten;

okupatuégiak gaude denbora betetzen, egunak dituen ordu guztiak planifikatuta izaten errealizatuak sentitzeko. Kontraesan handi bat dugu: kasu egiten diogu denborari (ordulariari) baina era berean ez, ez garelako ohartzen, ez dugulako bizitzen den ordu hori, beti gaudelako pentsatzen «eta gero zer?». Horrela egun bat eta beste bat, oraina edo momentua sentitu ez eta aurrera begira.

Ordu bat “kendu” edo ordu bat “eman” berdin du, inporta duena da ordu hori “bizi” egin beharko genukeela. Ez baita berrirori etorriko, hori ziur. Eta gero etortzen dira aieneak eta damuak. Berandu? •

**Miren Azkarate Badiola**



## PANTAILA TXIKIAN

Gaizka Izagirre Brosa

# Telesail gehiago ikusten ditugunetik, gutxiago irakurtzen al dugu?

Zergatik esaten da azken urteotan, telesailak asko hurbiltzen ari direla, bai forma bai eduki aldetik, aitzina literaturak betetzen zuen eremura? Telesailak fikziozko literaturan betidanik dauden elementu narratiboak baliatzen dituelako agian? Ala gehiago da, lehen irakurketari eskaintzen genion denbora telesailak ikusteari eskaintzen diogulako? Telesail gehiago ikusten ditugunetik, liburu gutxiago irakurtzen al ditugu?

**G**aldera maitasun horietan murgildu aurretik, literaturaren eta telesailen arteko erlazioren gaia mahaigaineratu nahiko nuke. Telesailek literaturaren iturburu beretik edaten dutela argi dago, baina ez eleberri konkretu batean oinarritzen direlako soilik,

istorioa bera eta hauek hornitzen dituzten pertsonaiak eraikitzeke orduan azalartzen diren antzekotasunak oso nabarmenak direlako baizik. Fikzio horien guztien gidoiak literarioak izaten dira eta aipaturiko pertsonaiek sakontasun berbera izaten dute.

Pentsa hainbat astetan zehar irakurtzen jardun dugun liburu horren protagonistak

gugan izan dezakeen eragina edo zortzi denboralditan zehar ezagutu dugun pertsona horrekin “bidaiatzeak” zerenolako enpatia maila sortzen duen gugan. Eta ez hori bakarrik, kontsumitzen ditugun moduan ere antzekotasun handiak loratzen dira. Dosi txikietan ikusi/irakurri ditza kegulako; autobusean, tren geltokian, ohean... liburuaren pasarte bat ala telesailaren atal konkretu bat ikus dezakegu, eta ordu batzuk geroago, utzi dugun puntutik inongo arazorik gabe jarraitu.

### TELESAILEN BALIABIDEAK

Telesailek erabili ohi dituzten baliabide literario horiek zeintzuk diren ezagutzeko,

onena adibide konkretuak aipatzea da. Izan ere, fikziozko literaturan betidanik dauden elementu narratiboak baliatzen ditu telesailak. Hasieran esan dudan moduan, istorioak kontatzeko makina perfektua bilakatu direla esan daiteke. Literatura zatikatua- ren ezaugarri asko ditu, adibidez, estruktura narratiboak, eta ikuslearen arreta mantentzeko hainbat baliabide ere erabiltzen ditu. Arthur Conan Doylek edo Charles Dickensek erabiltzen zituzten oso antzekoak. Metaforak, elipsiak ala gaur egun hain modan dagoen “cliffhanger” delakoaren erabilera (atal konkretu baten azken eszenan ikusi edo sentitu daiteke normalean, baita






film edo liburu baten azken uneetan ere. Gugan sortzen duen sentimendua, zirrara, egonezina, suspensea eta, batez ere, hurrengo atala ikusteko irrikan egotea da).

Baliabideak aipatzen hasita, autore jakin batzuen eragina erakustea ere interesgarria iruditzen zait. Lotura hau argiago ikusteko, bi bereizketa egingo nituzke. Alde batetik, generoak.

Zientzia-fikziozko edozein telesail ulertzeko, adibidez, edo distopia tartean dagoen edozein kontakizun, Ray Bradburyren eragina saihestezina da. George Orwell, "Black Mirror" ulertzeko adibidez, edo nola ez Shakespeare. Drama klasikoetan ageri diren obsesio guztiak (familia, ohorea, boterea, odola, traizioa, tentazioa, errua...) "Succession", "Peaky Blinders", "The Sopranos", "Breaking Bad", "Sons of Anarchy", "Gomorra"... telesailetan ikus daitezke argi eta garbi.

Bereiziko nukeen beste alderdia kokalekua da. Telesaila non kokatzen den, horren arabera, egile konkretu baten eragina antzeman baitaiteke



sarritan. AEBetan girotzen den istorio batean, Stephen King-en kutsua antzeman dezakegu askotan –"Stranger Things", adibidez–. Baita Edgar Allan Poe edo Mark Twain-ena, zergatik ez. Edo herrialde nordikoetatik datozkigun "Forbrydelsen", "Bron/Broen" edo nordic noir generoa ardatz duten izenburuak Henning Mankell, Stieg Larsson eta Jo Nesbø bezalako idazleei zor dizkiegula esan daiteke. Ingalaterran, berriz, aipaturiko Doyle eta Dickens, Jane Austen, Agatha Christie eta abar.

#### BERRELIKATZEN DIRE BI MUNDU


Katalogoa handitzeko gosez dauden hainbat plataforma digital tarteko, ez da harrizkoa liburuen egokitzapenak areagotzea. Trama nagusia eta pertsonaiak garatuak dauzkan eduki bat moldatzea eta hori ekoiztea errazago izan daiteke hutsetik hasitako gidoi batekin lanean hasita baino. Etxean babestu ginen koronabirusarengatik, eta albistegi ezkorretatik ihes egiteko asmoz *streaming* plataformetara bidaiatu genuen.

"Bridgerton" edo "Queens Gambit" telesailen arrakasta itzelak susmatzen nuena berrestera etorri ziren: supersalmenta literarioen egokitzapenek hobeto funtzionatzen dute pantaila txikian (maila ekonomikoan) orrialdeetan baino. Moldaketek ez dute hutsera jauzi egingen: izenburu ezagunak ekoiztea negozio errentagarri bihurtu da.

Liburuek beti eman diote lehengaiia Hollywoodi, baina ugaritzen joan dira plataformen materialaren beharrak bultzatuta. Argitalpen negozioaren barruan, eduki litera-

rioaren egokitzapena sektore bakanetako bat bihurtu da, pandemian benetan azkartu dena. Etxean denbora gehiago egoteak eta, 2020an bereziki, ekoizpenak eta filmaketak murriztuta ikusteak pantailarako eduki eta inspirazio iturria bilatzera behartu ditu industriako exekutiboak. Argitaletxeak dibisio berriak sortzen hasi dira ikus-entzunezko eskubideen salmentak kudeatzeko, ekoizleak plataformei proiektuak aurkezteko eta literatura katalogoak mugitzen dituzten enpresa berriak ere sortzen ari dira. Harrigarria dirudien arren, “eleberri bilatzaileak” izeneko postuak ere badaude ikus-entzunezkoen alor desberdinetan –enpresa erraldioetan jakina–. *Scouterrak* –euskaraz, esploratzaileak–, funtsean, etengabe irakurtzen aritzen diren pertsonak dira. «Bila iezazkidazu duela gutxi argitaratu diren komedia erromantikoak» esan eta bilaketan hasten dira egokitzea interesgarriak izan daitezkeen izenburuak arrantzatzeko.

Pentsa noraino iristen ari den moldaketan kontua, 2022an soilik, 20 libururen egokitzapenak estreinatuko direla; “Conversations with Friends” (Sally Rooney), “Daisy Jones & The Six” (Taylor Jenkins Reid) edo “The Son” (Jo Nesbø), besteak beste. Ezin ahaztu jakina, Jon Arretxe idazleak iazko udaberrian eman zuen albistea: Toure detektibeak literatura-tik pantailara egingo duela jauzi. Zazpi liburu ditu jada detektibearen inguruko sailak, eta telesail bat ari dira prestatzen. David Perez Sañudo ari da gidoiak idazten, zortzi atal izango ditu eta filma-



zio Bilbon, Ipar Euskal Herrian eta Parisen egingo dute.

Berrelikatzen diren bi mundu direla jarri dut lerroburuan, hain zuzen, alderantzizko kasuak ere badaudelako. Alegia, jada argitaratuak egon arren apenas irakurlerik ez zituzten liburuak, telesail formatura jauzi egin ostean paperezko formatuan sekulako salmentak izan dituztenak. Adibide argiena “The Handmaid’s Tale”. “Neskamearen ipuina”, Margaret Atwoodek 1985ean argitaratua, oso hedatua zegoen arren, pantaila txikiaren moldaketari esker mundu mailako fenomenoan bilakatu da, eta eleberriaren ospe maila hamarkoiztu egin da azken urteotan, baita idazleak berak idatziak zituen beste hainbat istorio ere (“Alias Grace”, esaterako). “Lupin” telesailaren arrakastari esker beste hainbeste gertatu zen Arsene Lupin-en liburuekin. “Outlander”, “Fariña”, “Unorthodox”... adibide ugari.

#### ETA IRAKURKETAREKIN ZER?

Pantaila Txikian izeneko atalean idazten dudala kontuan izanik, eta nire pasioa zinema eta telesailak direla, zaila


irakurketak ez luke zertan beste aisialdi mota batzuen aurka lehiatu, guztia lehentasun kontua besterik ez dela uste baitut, eta erabat bateragarria izan daitekeena. Pantaila txikiko istorioak geure egunerokoan txertatu diren arren, irakurtzea benetan maite duen horrek, gutxiago bada ere, irakurtzen jarraituko du. Gaua iritsi, sofan eroso eseri, eta “Squid Game” telesailaren bost atal irentsi beharrean, atal bakarra ikusi eta mesanotxean duen liburu hiru pasarte irakurri, adibidez.

Gainera, eta honekin amaituko dut, egun estreinatzen diren telesail guzti-guztiak ikusteko ideia baztertu behar dugu behingoz, hori ezinezkoa baita. “Telesailak toxikoki irensten” artikuluan idatzi nuen moduan, irakurketarekin gertatzen den bezala, alderdi atsegingarria ez galtzea ezinbestekoa izan beharko luke. Istorioak ikusteko desiratzen baino, ikusi ditugula kontatzeko gogoz gaudela dirudi. Ezer ez galtzearen obsesioa gailentzen ari da eta antsietate horrek kontsumitzeko modu toxikoa sortzen du.

Twitterren ere partekatu nuen galdera, hona emaitza:

egiten zait argudio hau defendatzea, baina hala pentsatzen dudanez, badoa: telesail gehiago ikusten ditugunetik, liburu gutxiago irakurtzen ditugu. Ez dut kultur kontsumoari buruzko datu ofizialik bilatuko, begi bistakoa iruditzen zaidan argudioa delako. Ez dakit zenbatekoa den galera literarioa telebistaren irabaziaren aurrean, baina balantzea hori dela eztabaidaezina iruditzen zait. Gero eta argiago daukat eta nire bizitzan horrela esperimentatzen dut: lehen irakurketari eskaintzen nion denboraren zati handi bat –osoa ez esatearren– orain telesaili eskaintzen diet. Kito.

Dena den, lerro hauek idazten ari denaren iritzi apalean,







**Itziar Elizondo Iriarte**  
Harremanak Hezkuntza Elkarteko kidea

## Metagerra

**M**etabertsoa hedabideetan bolo-bolo hizpide dela ikusten dugun honetan, Putinen eraso etorri zaigu Mendebaldeko paradisu artifizialei enbarazu egitera. Gerraren errealitate gordinak egunez egun biktimak eragiten dituen bitartean, kapitalismo digitalarekin dirutzen direnak beren neuronak eta xoxak inbertitzen ari dira gure hurrengo denbora-pasa asmatzen. Funtsezkoa da Mendebaldeko langile gero eta pobretuagoak entretenituak edukitzea. Ez dadila izan ekintza politikoan energia gehiago jartzeak boteretsuen txosna globala hankaz gora jartzeko arriskua areagotzen duela. Olgetan-benetan heltzen diegu teknologia berriei, nobedadearekin txundituta, eta azkenean gure datuekin sekulako irabaziak lortzen dituzte enporio digitaletan. Halaxe izan da sare sozialekin eta gauza bera gertatuko da errealitate birtuala gure egunerokoan txertatzen dutenean.

Nolanahi ere, gerrak sortzen duen atsekabea hain da handia, ezen eskapistetan eskapistenek ere ezin dutela ihes egin hondamendi itzel horretatik. Izango dira arrazoi gizaldekakoak, izango dira arrazoi praktikoak, baina beste gerretan ez bezala, ukrainarrekiko elkartasuna agerikoa izaten ari da Europa osoan. Gerra hori nahikoa gertu daukagu birtualizatu ahal izateko. Lehenik eta behin, bonbak, erasoak, izua, biktimak... errealak dira. Eta gero dator gerrak ere nola eragin digun gudu zelaian bizitzen ez garenok, aurretik zeuden arazoak areagotuz (energiaren prezioa, inflazioaren gorakada...).

Ukrainako inbasiora arte Mendebaldeko gobernuak Putinen biolentzia errealitate birtualizat jo dute. Putinek urratutako hainbat eskubide pantaila batean jokaturako tirabirak bailiran. Aldiz, Errusiako presidentek egin dako guztia gertatu egin da: kazetari kritikoen erailketak, arerio politikoen atxiloketak, LGTBI kideen zapalkuntza, Txetxeniaren kontrako erasoak. Nonbait hori guztia ez da

nahikoa errealia izan Mendebaldeko gobernuari erreakzionarazteko. Ohi bezala, interes ekonomikoak, besteak beste, gailendu dira herritarren bizitzan eta eskubideen aurrean. Errusia Europako gas hornitzailea izateaz aparte, merkatu itzela da, eta Errusiak kontsumoari ateak zabaldu zizkionetik herrialde kapitalistek ez dute aukera hori galdu nahi izan.

**Era berean, errealitate birtualeko merkatuan FOMO (Fear of Missing Out Opportunities) sindromea nagusi da.** Alegia, Facebook-Meta eta gainontzeko enpresek ez dute aukera berri hori galdu nahi. Lehiakideek aurrea hartuko ote dieten beldur, enpresen arteko gerra hasia da dagoeneko. Izan ere, errealitate birtuala eraikitzeke langile espezializatu gutxi dago, eta Metak direnak eta ez direnak eskaini dizkio Apple eta Microsofteko hainbat langileri. Beraien arteko gerra horretara murriztuko baltz, gaitz erdi. FOMO horrek dena baimentzen die, eta marketin kanpainak mundu mailan abiarazi dituzte oraindik existitzen ez den zerbait saltzeko, ez baitago egun nahikoa teknologiarik errealitate birtual hori merkaturatzeko.

Birtuala edo errealia, enpresetan eta politikan estrategia beti ikur. Eta estrategia horren helburuak betetzeko gerra beharrezkoa bada, arazorik ez. •



Herritar bat Ukrainako Trostianets hirian. Gerra eremu askotan gertatzen ari da, baita digitalean ere. Fadel SENNA | AFP

{ koaderno } Iker Barandiaran

# Esnatze lotiak

Astean semeek esan didate errusiarrak gaizto akaberakoak direla eta hilda egon beharko zutela. Azaldu diet agintariak direla errudun eta ez herri bateko zein besteko herritarrak. Aldi berean, sare sozialetan zabaldu dira non-nahi aspaldi ikusi gabeko “*No a la guerra*” mezuak, azken 15 urteotan munduan inon gerrarik egon ez balitz bezala. Eta askotan, hain justu, gerraren kontrako mezuak aldarrikatu izan dituzten horiek dira Ukrainara armak bidaltzeko eskaera behin eta berriro egiten dabiltzanak. Hori gutxi ez eta, telebistako zenbait kanaletan Ukrainako bandera ageri da kieto azpialdean elkartasun ikur gisa. Halakoa da leku askotatik bizi dugun olatua, Twitterren euskal hiztegiaren lanketan aritzen den taldeetako batek ironikoki azpimarratu duela gutako askok hobeto dakigula Ukraina euskaraz ondo idazten «leihoa» hitzari «h»-a non dagokion asmatzen baino. Mendebaldeko lehoiaren errua izango da akaso?

Elkartasuna barra-barra dago orain; esaterako, aspaldi –inoiz bai?– ikusi ez dudana bezala, Errusiak munduan dituen enbaxaden kontrako ekintza sinboliko ugari egiten dabil tza herritar zenbait. Oso deigarriak iruditzen zaizkit halako ekintzak eta badira neurri batean eredu-garriak. Gainera, pozten naiz oraindik jendeak mugitzeko eta protestatzeko gaitasuna duela jakitearekin. Hori bai, baina... erabat harrিতuta nauka justu Errusiaren eta errusiarren kontrako gorroto hazkunde horrek. Orain bai, eta atzo eta beste leku batzuetan gertatutakoengatik ez? Sentsazio antzekoa izan nuen zaborrak kudeatzeko atez atekoa jarri zutenean. Inola ere espero ez nuen erantzuna ikusi nuen tradizionalki (esaeran asmatu dut) mugitzen ez zen gizarte zati batean. Ez ditut nik zibilak hiltzea organikoa etxean atera gabe bi egun eduki behar izanaren sufrikarioarekin alderatuko,

ez horixe, baina batzuentzat oso larria da hori –zaborrarena–, edo behintzat hala sinetsarazi zieten. Eta, ondorioz, hala irten ziren kalera (zaborrarena) hil ala biziko kontua balitz bezala. Olioaren eta esnearen pilatzea bezala?

Ez naiz ni inola ere gerren aldekoa, gupidagabeak dira erabat, eta erdian daudenak –herritarrak– dira benetan sufritzen dutenak. Haiena ez da errua, baina herritarrenak ez diren interesengatik soilik eusten diren agintari ustelak dituzte, eta aurkari nagusi logika militar itsuan hazi eta puztutakoak.

Eta ez dut nik Putin babestuko. Hamarkadak daramatza haren herrian herritarrak zapalduz nahi izan dituen guztiak eta gehiago egiten, Txetxenia adibide odoltsuenetik hasi eta federazioan bertan dituen aurkariak zapaltzeraino, aspaldi erakutsi zuen eskrupulurik gabekoa dela. Baina zerk ezberdintzen

Pozten naiz oraindik jendeak mugitzeko eta protestatzeko gaitasuna duela ikusita. Baina erabat harrিতuta nauka justu Errusiaren eta errusiarren kontrako gorroto hazkunde horrek. Orain bai, eta atzo eta beste leku batzuetan, zergatik ez?

du Putin bera, azpijokoz beste batzuk erabilia edo zuzenean marineak bidalita dozenaka herrialde inbaditu, suntsitu eta milioika zibil hil dituen AEBetako agintariengandik?

Ondorioz, zergatik ez dugu berdin protestatzen beste edozein herrialdetan halako sarraski gordinak egiten dituztenean? Zergatik justu orain, nahiz eta bidegabekeriaren kontra protestatzea zilegi den beti, jakina? Ba, seguruenik, hamarkadak daramatzagulako AEBetik datorrena begietatik, belarrietatik eta ahotik irensten. Hainbeste, non haien zerrenda odoltsua (eta eguneratua gainera) ahaztu eta haiek zabaldutakoarekin erabat lerrokatzen garen. •



**A**pirilaren 2an Autismoaren Nazioarteko Eguna da. Horren harira, Autismoaren espektroko nahasmenduen (AEN) errealitate zabalean ia 50 urte lanean daramatzan Apnabi Autismo Bizkaia elkarteak Bilboko egoitzara hurbildu da GAUR8, gaur bezalako egun batean gizarteari zer esan behar dioten jakitera. Egur argiko horma horien berotasunean, Mikel Pulgarin elkartearen presidentea AENdun pertsonen ematen zaien arretaz hitz egin digu, gizartean atzemandako aurrerapausoez eta oraindik behar den pedagogiaz, baina batez ere etorkizunaz, emakumei begirako diagnostikoei dagokionez, eta erronka berriez, zahartze prozesuei eman beharreko erantzunez, urtero hazten den errealitate bati erantzuteko erronkaz...

AENak neurogarapenaren nahasmenduak dira, nerbio sistema zentralaren heltzearekin lotutako funtzio alterazioak, baina sintomak era askotakoak izan daitezke eta profil ezberdinak sortzen dituzte. Hain zuzen, emakumezkoen artean infradiagnostikoa egon daitekeela uste dute adituek, eta horri ere erreparatuta, Estatu mailan eta Europan erreferente den elkarreko genero ikuspegia txertatzeko lanean ari da.

**Autismoa duen pertsona bati irakurritakoa: autismoa beste modu batean funtzionatzen eta informazioa prozesatzen duen garuna izatea da. Nola deskribatuko zenuke?**

Autismoaren espektroko nahasmenduez ari gara; abaniko bat bezala da. AENa duten per-

*«Askotan ez gara gai haien kodeak deskodetzeko edo ez dugu nahi, ez gara ahalegintzen. Arazoa ez da beraiek ez direla komunikatzen, baizik eta gu ere ez garela ulertzen saiatzen»*

*«Faktore asko pentsarazten dute uste baino autismoa duten emakume gehiago daudela. Ikerketa gehienak horri begira daude, nola detektatu, ebaluatzerakoan zer ezaugarri kontuan hartu, diagnostikoa eraginkorrago nola egin aztertzeari begira»*

tsona guztiak sartzen dira abaniko horretan, baina badira autismo zorrotza dutenak, laguntza premia oso handiak dituztenak, hizkuntzarik ez dutenak –nire semea, adibidez– eta adimen urritasunik ez duten pertsonak, autokontzientzia direnak baina inguruarekin erlazionatzeko arazoak dituztenak, Asperger sindromea dutenak, adibidez. Pertsona bakoitza mundu bat da, baina bada batzen dituen zerbait, abanikoaren iltzea, inguruarekin interaktuatzean dituzten

arazo horiek. Izateko modu bat izan daiteke, mundua ikusteko modu bat.

**Erantzuteko modu desberdin horren ondorioz, askotan interpretatzen da adia galdurik daudela, nahiz eta ez den horrela.**

Nik beti esaten dut bi aldeek ulertzeko moduko kode komun bat behar dela komunikatzeko. Kode desberdinak erabiltzen direnean, komunikazio horretan distorsioa gertatzen da. Ez da bi aldeetako

batek komunikatu nahi ez duelako. Autismoa duten pertsonen beren kodeak dituzte komunikatzeko orduan, eta haien bidez komunikatzen dira. Autismoa ez dugunok askotan ez gara gai deskodetzeko edo ez dugu egin nahi, ez gara ahalegintzen. Askotan arazoa ez da komunikatzen ez dutela, baizik eta gu ere ez garela ulertzen ahalegintzen.

**Diagnostikoari dagokionez, Apnabi genero ikuspegia txertatzen ari da, zergatik?**



# «Emakumeen artean autismoaren infradiagnostikoa egon daitekeela ikusi da, eta horren arrazoiak askotarikoak izan daitezke»

Historikoki uste izan da autismoa nahasmendu maskulinoagoa zela emakumeena baino, harremana emakume bat zelako diagnostikatutako lau gizoneko. Denborak aurrera egin ahala ikusi da emakumeen artean ziurrenik izan dela eta badela infradiagnostiko bat. Arrazoiak askotarikoak izan daitezke; emakumeak gizartearen duen ikusgarritasuna beti izan da txikiagoa, emakume horien nahasmendua ez da hain agerikoa izan, agian emakumeen izaerak ere eragina

izan du, eta atzean egon ahal izan dena estali du... Faktore askok pentsarazi dute uste baino autismo handiagoa duten emakume gehiago daudela, eta, horregatik, orain, ikerketa gehienak nola detektatu behar den, diagnostikatzerakoan eta ebaluatzerakoan zer ezaugarri hartu behar diren, diagnostiko hori eraginkorragoa nola egin eta ezkutuan zegoen hori argitaratu nola atera aztertzeari begira daude. Ziur asko, ikusiko dugu emakume gehiagok dutela AENa, emakumeek ezaugarri desberdinak dituztela, eta, horren ondorioz, diagnostikoa eta pertsona horiekiko esku-hartzeak espezializatua goak izango dira, fokalizatua goak. Hori medikuntzaren arlo askotan gertatzen ari da, emakumeen eta gizonen arteko afekzio maila desberdin hori ulertzea, ezkutuan baitzegoen. Orain hori guztia aldatzen hasi da, eta azterketa farmakologiko guztiak ere sentsibilizatu ta daude gai horrekin.

**AENen diagnostikoaren esparruan, osasuneko eta hezkuntzako profesionalak prestatuta al daude detekziorako eta deribaziorako?**

AENaren diagnostikoa oso espezializatua da. Autismoa duten pertsonak ikusten urte asko daramaten pertsonak izan behar dute. Autismo larria errazago diagnostikatzen da Asperger sindromea baino; elementu batzuk argiak dira. Degaitasun intelektualik ez duten kasuetan, zailagoa da. Normalean Apnabin osasun zerbitzu publikotik, osasun mentaleko zerbitzutik eta pediatretatik bertatik deribazio asko jasotzen ditugu. Gaur egun diagnostikoa hainbat esparrutatik egiten da, baina elkartetik beti aldarrikatzen dugu iritzi espezializatu bat

egon behar dela, eta norbaitek Bizkaian autismoaz badaki Apnabi da. Hemen jende asko diagnostikatzen dugu. Psikologo klinikoaren talde bat dugu, diagnostikatzerakoan esperientzia handia dutenak, autismo kasu asko ikusi dituztenak eta diagnostikorako sortzen diren tresnak erabiltzen dituztenak. Gainera, alor honetako diagnostikoa diziplina anitzekoa da, konplexua, faktore asko ebaluatu behar direlako. Hau ez da azterketa bat egin eta badakizu, normalean prozesu bat dago.

**Kasuak Apnabira bideratzen dira?**

Normalena da pertsona horiek beren pediatregana edo medikuengana joatea; ondoren, osasun mentaleko eremuetara bideratzea, eta, ondoren, Apnabira bideratzea, diagnostikoa egiteko. Sare publikoaren lankidetzaren erabatekoa da, bai diagnostikoan, bai kasuen jarraipenean, bai gai farmakologikoan. Hemen ditugun gela hauek tratamenduaren etapa desberdinetan dauden 18 urtetik beherako kontsultak dira, eta horietako asko hemen diagnostikatu dira.

**Diagnostiko goiztiarrak zer garrantzi du AENan?**

Autismoan, zenbat eta lehenago detektatu eta lehenago esku hartu, pronostikoa hobea da, eta autismoa duten pertsonen bizi kalitatea handiagoa. Autismoan funtsezkoa da denbora hori, batez ere haurtzarokoa, non gauza asko ikasten diren, non garuna irekita dagoen; eta hor eraginkortasun handiz joka daiteke. Hori egiaztatuta dago. Ikusi dugunez, sei urte baino gutxiagoko pertsona bati diagnostikoa egiten zaionean eta esku hartzen hasten denean, –eta esku-hartzeaz hitz egiten

**MIKEL  
PULGARIN**

**APNABIKO PRESIDENTEA**

Autismoa dutenen Bizkaiko familien elkartean, 1.500 lagun artatzen dituzte gaur egun, eta hazkunderako prestatzen ari direla azaldu digu Mikel Pulgarinek.

Nerea Goti



dugunean, hezkuntzaz ari gara, besteak beste-, pertsona horien jarreretan, portaeretan, jarraipen klinikoan, farmakologikoan, pertsona horien aurrerapena handiagoa da. Autismoan denbora garrantzitsua da.

Zoritxarrez, adimen desgaitasunik ez duten pertsona horiekin gertatzen dena da berandu iristen direla, diagnostikoa oso argi ez dagoelako, familia batzuk uzkur direlako, seme-alabak ia normalak direla ikusten dutelako... eta nerabezeroan sartzen direnean itzultzen dira, espektro horretan arazoak oso argi agertzen hasten direnean, eta hor denbora ederra galdu da, pertsona horiek etapa horietarako prestatzeko erabil zitezkeen denbora. Apnabin plan pertsonalizatuak egiten ditugu, ez da estandarra. Pertsona horietako bakoitzaren bizi proiektua egiten dugu, eta zenbat eta lehenago diseinatu orduan eta errazagoa izango da ibilbide hori, bizi baldintza hobetan egingo du, askoz kalitate handiagoa izango du.

**Autismoa duten pertsonen, batzuetan, arbuio egoerak izaten dituzte.**

Ezjakintasunaren ondorio da, ezagutzen ez duguna edo beldurra edo arbuioa eragiten diguna. Kasu gehienetan, erantzuna neutroa da; aldenitu egiten gara, existituko ez balitz bezala. Horregatik da garrantzitsua ikusaraztea. Autismoaren munduko eguna ospatzen dugunean, kalera atera nahi dugu, ateak eta leihoak ireki autismoaren atzean dagoena erakusteko, autismoa duen pertsona bat nolakoa den erakusteko; gizarteak hori ezagutzeko, onartzeko eta integratzeko modua delako. Guretzat funtsezkoa da izan dugun ibilbidea. Apnabi



*«Autismoan, zenbat eta lehenago detektatu eta lehenago esku hartu, pronostikoa hobea da, eta autismoa duten pertsonen bizi kalitatea handiagoa»*

50 urteko elkartea da. Duela 50 urte, iluntasunik handiena zen. Gizartean kontzientziario handia egon da. Beste fronte batzuetan gertatzen ari den bezala, gizarteak aldatzen ari da pixkanaka, eta ikusten dugu pertsona desberdinak onartzen ari dela. Hori guztia komunikabideen, ekitaldien eta kalera ateratzearen bidez egiten da, gure familiek beren inguruneekin dituzten harreman pertsonalen bidez.

Familiei esaten diegun lehen gauzetako bat da 'hau zuen senideei, bizilagunei, auzoari kontatu behar diezue' hori baita pertsona horiek integratzeko modu bakarra, auzoak, hiriak, onartu egin behar dituelako. Eta onartzea da, halaber, darmaten bizitza hobea izan dadin baldintzak jartzea, irisgarritasun baldintzekin, ulermen baldintzekin, kode berean erantzutea espero ez dezakezula ulertzearekin. Haien lekuan jartzeko ahalegina egin behar du-

zu, hori da enpatia. Hori da gizarteari eskatzen dioguna.

**Pedagogia hori, adibidez, Ertzaintza bezalako eragileekin ere jorrotzen du Apnabik.**

Bai. Askotan gizarteak ez dago prestatuta. Gizarte oso estandarizatuetan bizi gara, oso protokolizatuetan, arau horretatik ateratzen den edozeinek eragiten du sistemaren alarmak piztea. Pandemiarekin ikusi dugu, adibidez. Gure zereginetako bat autismoa duten pertsonen egunerokotasunarekin lotura izan dezaketen kolektibo horiekin guztiekin dago lotuta, pertsona horiek kontziente izan daitezten, edo, gutxienez, jakin dezaten atzean zer dagoen, pertsona horiekin nola erlazionatu, zer egoera aurki daitezkeen, nola jokatu pertsona bat blokeatzen dela ikusten dutenean. Pedagogia da, eta ospitaleekin egiten da. Izan ere, gure neska-mutiko batekin ospitaleetako larrialdetan egotea erokeria da, itxaro-

teko gaitasunik ez dutelako, urduri jartzen direlako, larritu egiten dira... Ordu bat larrialdiko itzarongelan, istilurik izan gabe... Autismoa duen haur edo gazte bat ospitalera joaten denean, ahalik eta azkarren artatzen saiatu behar dute, edo, bestela, haien familiakoak leku batean jarri behar dituzte, jende gutxiagorekin. Horixe izan zen, hain zuzen ere, pandemia garaian izan genuen kezka handienetako bat, norbait kutsatu eta isolatu behar zenean. Neska-mutil hauek ezin ziren bakarrik egon, ezinezkoa zen. Imajinatu protokolo horretan salbuespen bat egiteko borroka, ikusten genuelako salbuespenak egin behar zirela, ezinezkoa zelako. Gure neska-mutilak ezin ziren etxean itxita egon, behar zuten kalera ateratzea. Mundua hondoratzen zitzaien. Azkenean, gizarteak kontzientziaztea da hori, egoera horietan zubiak jartzen saiatzea; izan ere, beren bizitza gogorra

da egunerokotasunean, ez gehiago zailtzeko; zentzutasuna eta sen ona jartzen saiatzea zen, gauzak errazteko.

**Itxialdian, Apnabik zubi lana egin beharko zuen instantzia askoren aurrean, errealitate horiek kontuan har zitezten.**

Etengabe. Konfinamendutik, murrizketen aurrean, kalera irteteko aukera izan zezaten, balikoietako polizia ospetsuen aurrean. Intzidente asko egon zen ezjakintasunagatik. Azaltzen diezunean, normalean atzera egiten dute eta ez da ezer gertatzen, eta bere jarreran jarraitzen duenak bere burua definitzen du. Baina etengabe saiatu gara arauak eta protokoloak gure neska-mutilen errealitatera egokitzen. Neska-mutil horiek protokoloaren barruan sartzen saiatzeak egoeraren bat behartzea esan nahi zuen, erabat irrealia. Ahalegin handia egin zen, etengabeko alerta egoeran.

**Nola antolatzen da etxebizitzaren arloa?**

Etxebizitza sistema bat dugu. Oso etxebizitza txikiak dira, sei pertsonakoak, hamarrekokoak gehienez. Dozena bat etxebizitza inguru ditugu etxean bizi ezin dutenentzat, kasu batzuetan gurasoak hil direlako, eta haiek ere helduarora iristen direlako. Autismoa duten pertsonak dira, heldu egiten direnak eta independentzia nahi dutenak. Etxe baten ezauzgarria duen egoitza da. Funtsezko gaia da hori, bazkideak zahartzen doazelako eta baliabide horiek gero eta beharrezkoagoak direlako. Hainbat etxebizitza mota ditugu, baita autismoa duten pertsonen bizitza independentea garatzen duten etxebizitza batzuk ere. Horrek asko laguntzen die 'nire seme edo alabarekin zer

«Autismoaren prebalentzia ehun biztanleko bat dela esaten da; horrek esan nahi du jende asko dagoela ziurrenik diagnostikatu gabe. Beraz, AENaren munduak hazten jarraituko du»

gertatuko da?' pentsatzen duten familiei.

**Zein da Apnabiren egungo erronka?**

Batez ere, hazteko erronka. Urtero ehun familia baino gehiago sartzen dira Apnabin. Autismoaren prebalentzia ehun biztanleko bat dela esaten da; horrek esan nahi du jende asko dagoela ziurrenik diagnostikatu gabe. Beraz, AENaren munduak hazten jarraituko du datozen urteetan. Urtero ehun familia inguru gehiago baditugu, esan nahi du gure zerbitzuak zabaltzen joan behar dugula eta gero eta antolaketa handiagoa egin behar dugula, baliabide ekonomikoaren behar handiagoarekin. 400 profesional ditugu Apnabin, hau da, enpresa handi bat da.

Autismoa duten 1.500 pertsona artatzen ditugu, etengabe. 1.500 neska-mutil dira, eta bakoitza programa batean edo bestean dago, batzuk besteak baino behar handiagoekin. Gure arazoa hazkunde arazo bat da, etorkizunean sortuko diren behar horiei nola erantzun jakiteko arazoa, agertuko diren eremu berriak, hala nola AENaz eta emakumeaz aipatu duguna, baina baita zahartzearekin lotutako gaiak ere. Gure neska-mutilak zahartzen ari dira; nola izango da etapa hori, zeintzuk izango dira haien beharrak, zer baliabideekin bete ahal izango ditugu behar horiek. Urte gutxiren buruan 2.000 familia izango gara –eta hazten jarraitzen du–, nola egin zerbitzua, arreta pertsonalizatua, hazkunde garrantzitsu horrekin bateragarri egiteko, eta nola lortu baliabideak egoera zail batean... Hori epe luzera diseinatu behar da, maniobrak egiteko denbora behar duen ontzi handi bat izaten hasi baikara.

## «Familiek laguntza behar dute, oxigenoa»

**Zer da Apnabi familientzat?**

Autismoa bezalako ezintasunek inguruneari eragiten diote. Apnabi familia elkarte bat da. Familia gabe ezinezkoa da aurrera egitea, baina familiek laguntza behar dute, oxigenoa, oso zaila izan daitekeen egunerokotasuna eramateko. Horregatik, oso garrantzitsua da beste familia batzuekin egotea eta arazoak, kezak eta itxaropenak partekatzea. Gainera, ahaleginak egiten ditugu seme-alaben bizi kalitatea hobetzeko proiektuetan lagun diezaguketen erakunde eta instituzioen aurrean solaskide izateko. Familia pedagogiaren zati handi bat garatzen den gunea da. Gure erakundearen dena familiara bideratuta dago. Guk autismoa duten pertsonak dituzten familiak hartzen ditugu, azkenean autismoa duen pertsona horrek beharrezko batzuk dituelako, baina inguruan ere beharrak sortzen dituelako. Gurasoek eta anai-arrebek zaintza handia behar dute.

**Zertan datza familiei eskainitako «arnasa» programa?**

Funtsezko programa da. Aterpetxeren batera asteburuko irteerak dira, ostiraletik igandera. Nik urteetan erabili izan ditut; kasu zail bat daukat. Hori lagungarria da pertsonen arnasa har dezaten, arnasa hartzea da hitzik politena, hori adierazten duelako, itotzeari uztea. Familientzako denbora hori funtsezkoa da normalean egin ezin dituzten gauzak egiteko: siesta egiteko, telebista ikusteko, liburu bat irakurtzeko, zinemara joateko, isilik esertzeko... Oro har, AEN kasu guztiek dedikazio handia behar dute, 24 orduko laguntza, eta horrek familiak ahitu eta desegituratu ditzake, eta familia erortzen bada, sistema osoa erortzen da. Oso argi daukagu etengabe egon behar dugula honi eusten.





# bidaiari

naiz:-en bidaia aldizkaria euskaraz

Lurralde  
berrietara  
goaz



dagoeneko  
zure  
kioskoan  
salgai

1,50€

## eta gainera...

### ACEREDO

TURISMO BEREZIA  
HERRI URPERATUAN

### ALKURRUNTZ

TXOKO EDERRAK,  
HISTORIA ABERATSA

### BALTIMORE

JAZZA  
ETA PORTUA

### PRATT ETA HESSE

BI GIZON ETA PATU  
BAKARRA SUITZAN

### KENYA

ARTELAN BIHURTUTAKO  
TXANKLETAK

**Bertatik bertara** Makina-erreminta museoa, ondare industrialaren historiaren «fabrika» **Egin planak** "Milton Glaser. Kartelak" Arte Ederren Museoan; Almadia Eguna Burgin; Zeinen Ederra Izango Den Fest jaialdia. **Hiriak laburrean** Tesalonika, Egeoko burua

**Munduan pasieran** "Printze txikia"-ren eskuizkribua, ikusgai; "La Joconde, exposition immersive"; Kalkutako Kale Artearen Jaialdia...



Hidenao Dohino historialari japoniarra Oñatin bizi da orain. XVIII. mendeko Gipuzkoako matxinadak ikertzen ari da. | Jaizki FONTANEDA | FOKU

# infraganti

## HIDENAO DOHINO

Yokohamako (Japonia) da, 27 urte ditu eta Oñatiko Artxibo Historikoan topatu dugu 1758. urteko liburu batekin lanean. Historialaria da eta doktoretza tesia egiten ari da XVIII. mendeko Gipuzkoako matxinaden inguruan. Zer gertatu zen baino, zergatik gertatu zen ulertu nahian euskal gizartea lupaz aztertzen ari da, lehengoa eta gaurkoa.

**E**uskaraz ondo egiten du. «Pandemiaren bi urteak Yokohaman eman ditut eta makaldu egin da nire euskara. Duela bi urte askoz errazago egiten nuen». Euskararen gramatika Japonian ikasi zuen eta Lekeition blaitu da euskaraz batez ere. Kuadrilla bertan dauka eta lagunarte horretan eta kale horietan jantzi du mingainean euskara. Berak ez dio ezer berezirik ikusten horri. «Konturatuta nago euskaldunentzat zein bitxia den japoniar batek euskara ikastea, asko eskertzen duzue. Hasieran harritu egiten nintzen taberna

batean kafesnea euskaraz eskatu eta tabernariak zoriondu egiten ninduelako, euskaraz eskatu izanagatik. Gauza normala da herri batean bertako hizkuntza erabiltzea, ezta?».

Euskaraz dakien japoniarra da Hidenao Dohino eta horrek askoren arreta erakartzen du. Famatua egin da. «Exajeratua iruditzen zait. Asko harritzen naiz horrekin. Konturatu naiz euskaldunek zenbat eskertzen duten beren hizkuntzan hitz egitea. Ez dakit, arraroa egiten zait erreakzio hori...».

Pandemiaren latzena Yokohaman pasatu eta gero, duela bi bat hilabete bueltatu da Euskal Herrira eta hiru aste darmatza Oñatin bizitzen.

«Historia luzea da nirea. Europako historia ikasi nuen lehendabizi eta gero Espainiako historia. Madrilen masterra egin nuen. Duela 300 urteko Madrilgo langileen historia

ikertu nuen; migratzaileen historia, zer-nolako sarea osatzen zuten, nolako harremak zituzten beren herrikideekin, joan-etorrian ibiltzen ote ziren...».

Gaztelera Japonian ikasi zuen, unibertsitatean. 2014an etorri zen Estatu espainolera eta Salamancan eman zituen aste batzuk, hizkuntzaren ikasketan sakontzeko asmoz. «Hiru aste eman nituen Salamancan eta konturatu nintzen han ez nuela hizkuntza barneratuko. Salamanca hiri zoragarria da, baina kanpotar mordoa dago eta ikusi nuen ez zela gaztelania ikasteko toki onena. Benetako Espainia ezagutzeko Cuencara joan nintzen eta toki bat ezagutzeko nire metodoa erabili nuen».

Metodo horri buruz galdetuta, artxiboko lana eta kalekoa uztartzen dituela esan daiteke. «Bertako jendearekin hitz





Dohino Oñatiko artxiboan lanean. Artxiboko lana eta kalekoa uztartzea gustatzen zaio herri bat ezagutu eta ulertzeko orduan. Jaizki FONTANEDA | FOKU

egin, festetara joan, museo etnografikoak bisitatu, liburutegetan bertako gaien inguruko liburuak miatu, unibertsitate-ra joan, nolako ikerketak egin diren ikusi, aurretik toki horri buruz irakurritakoak bertako jendearekin kontrastatu, bati eta besteari galdetu...».

Dohino bada artxiboko satorra, liburuetan murgiltzen den historialaria, baina antropologia ere maite du, herrien eta herritarren behatzailea ere ba-

da. «Liburuekin bakarrik ezin da herri bat ulertu. Liburuek ez dute herri baten historia osoa kontatzen. Horregatik gustatzen zait jendearekin egotea».

Madrilen masterra egiten ari zela, aukera guztiak baliatzen zituen toki desberdinak ezagutzeko. Euskal Herriko lehen bisitan Donostia, Bilbo eta Gernika ezagutu zituen, «euskara jakin gabe etorri nintzen hasieran. Oso desberdina da

**«Liburuekin bakarrik ezin da herri bat ulertu. Liburuek ez dute herri baten historia osoa kontatzen. Horregatik gustatzen zait jendearekin egotea»**

**Lehendabiziko aldiz Diman ikusi zuen bertso saio bat eta harrituta geratu zen. Bati eta besteari galdetuta, neurriak eta bertsoaren oinarriak barneratu ditu eta gai da bertsoak idazteko**

Euskal Herria euskara jakinda, asko aldatzen da. Jakin-mina piztu zitzaidan eta euskarazko liburu bat erosi nuen. Oraindik ez nuen gaztelera oso ondo hitz egiten eta pentsatu nuen akaso gaztelera gehiago menderatu eta gero, euskara ikas nezakeela».

Lekeition topatu zuen euskarara hurbiltzeko modua, bertako lagun kuadrilla baten eskutik. Madrilen ikasketak egiten ari zela, hilean behin saiatzen zen Lekeitiora etortzen asteburu pasa, «oporretan bezala etortzen nintzen Lekeitiora ahal nuen guztietan». Lekeitio maite du, batez ere bertako jendea, herri bat herritarrek egiten dutela uste duelako.

Aipatu bezala, euskal gramatika Japonian ikasi zuen. Madrilen bizi zela, bertako Euskal Etxean hasi zen astean pare bat aldiz euskara klaseak har-

tzen. Eta, hortik, Lekeitiora. Bertako euskalkia agertzen da etengabe Dohinoren hitzetan. «Nekatuta nagoenean ez hainbeste, baina ondo sentitzen naizenean Lekeitioko euskalkia irteten zait nahi gabe. Ez naiz hizkuntzalaria, baina baditut lagun hizkuntzariak eta haiekin asko hitz egiten dut euskarari buruz. Liburuak ere irakurtzen ditut. Egunero pentsatzen dut euskararen inguruan, beti dago nire buruan. Askotan ez dut ezer ulertzen, baina belarria jarrita, ikasten joaten naiz. Adibidez, autobus geltokian zain baldin banago, erne entzuten ditut inguruko en elkarrizketak eta euskalkiak igartzen saiatzen naiz. Nongoak diren galdetzen diet eta euskalki bakoitza kokatzen saiatzen naiz».

Euskara interesatzen zaio eta bertsolaritza ere deskubritu du. Martxoaren hasieran, Donostiako Ibaeta auzoko Aingeru Guardakoaren jaietan, oholtzara igo zen bertsolari profesionalekin eta bertso bat bota zuen. «Lehendabiziko aldiz bertso saio bat Diman ikusi nuen. Harrituta geratu nintzen eta interesa piztu zitzaidan. Bati eta besteari galdetuta, bertso neurriak zeintzuk diren jakin nuen, errima nola kokatzen den... pandemian, Yokohaman itxita nengoela, bertsoak egiten hasi nintzen eta lagunei bidaltzen, urtebetetzea zoriontzeko, adibidez. Eta horrela hasi nintzen bertsoak idazten, nire kasara. Lagunek bidalitako bertsoak ikusi, analizatu, eta antzekoa egiten saiatzen naiz. Besterik gabe. Baina oraindik ez dut ondo ikasi. Badakit egitura nola den eta gutxi gorabehera nola osatzen den, baina ezin dut esan bertsotan badakidanik».

Aurten Bertsolari Txapelketa Nagusiaren urtea dela esan

diogu. «Joan behar dut hori ikustera, bai, noski». Eta mar-txan den Korrikaren berri ere ondo daki. «Niretzat bigarren Korrika izango da, aurreko edizioan ere parte hartu nuelako. Lehendabizi Ispasterretik Lekeitiora egin nuen. Gero Ermuan ere izan nintzen eta azken egunean, Gasteizen».

#### GIPUZKOAKO MATXINADAK

Doktoretza tesia egiten ari da duela hiru mende Gipuzkoan gertatutako matxinaden inguruan. «XVIII. mendean, 6oko hamarkadan gertatutako matxinadak ikertzen ari naiz. Matxinadak baino gehiago, herri-tarrek nola bizi zituzten gertaera horiek. Gariaren prezioaren igoeragatik izan ziren matxinadak, espekulazioa tar-teko. Dokumentu historikoe-tan normalean ez da egunero-ko bizitza kontatzen. Matxinaden inguruan idatzi-tako dokumentuetan eta erre-gistroetan, aldiz, informazio mordo-a ageri da eguneroko bi-zitzari buruz. Nola bizi ziren, zergatik altxatu ziren batzuk eta beste batzuk ez, zergatik gertatu zen matxinada modu horretan, katean, herri batetik bestera zabalduz... Hori da nire iker-gaia».

Duela hiru mendeko euskal herritarren matxinadak iker-tzen ari da. Horrek laguntzen ote dio gaurko euskal herrita-rrak gehiago ulertzen? «Agian goizegi da horrelako ondorio-ak ateratzeko. Baina egia da euskal herritarrek beti badute-la zeren alde edo zeren kontra borrokatu. Jende oso aktiboa da, antolatua, kritikoa... agian horregatik interesatzen zaizkit duela hiru mendeko matxina-da horiek. Japoniako gizartea desberdina da, kolektiboa da besteak errespetatzeko eta ez molestatzeko orduan. Baina



kolektiboki zerbait antolatzea gehiago kostatzen da, pausa-tuagoa da, lasaiagoa, ez da hainbeste mugitzen».

Hiruzpalau urtetan ikerketa horretan buru-belarri aritzea espero du; Oñatiko, Azpeitiko, Azkoitiko, Tolosako, Bergarako, Mutrikuko, Debako, Eibarko, El-goibarko, Tolosako artxiboetan arituko da eta tarteka, agian, baita Madrilgo artxiboren bate-an ere.

«Orain Euskal Herrian nago eta nire ikerketarekin hemen jarraituko dut. Gero, zer? Auskalo. Urtez urte gauza mordo-a gertatzen zait, jende berria ezagutzen dut eta bizipen ho-rien arabera hartuko ditut era-bakiak seguru. Espainiara iri-tsi eta gero nire bizitza erabat aldatu zen, eta Euskal Herrira etorri naizenean, are gehiago». Yokohamako eta Euskal Herri-ko bizimoduak agian ez dira hain desberdinak Hidenaoren-tzat, «baina ni toki batean eta

**Duela hiru mende Gipuzkoan gertatutako matxinadak ikertzen ari da doktoretza tesian; «nola bizi ziren, zergatik altxatu ziren batzuk eta beste batzuk ez, zergatik gertatu zen...»**

**«Japonian dena normala iruditzen zait. Ez naiz kalera asko ateratzen, etxean egoten naiz lanean eta liburuak irakurtzen... Euskal Herrian dena da berria, dena jakin nahi dut»**

bestean nola bizi naizen bai da desberdina. Japonian dena normala iruditzen zait eta ez zait bereziki ezer interesatzen. Ez naiz kalera asko ateratzen, etxean egoten naiz lanean eta liburuak irakurtzen... Euskal Herrian, berriz, dena da berria, dena jakin nahi dut eta dena ikusi nahi dut. Bertako herri guztietara joaten naiz, dena iruditzen zait berria, desberdi-na. Interesgarria iruditzen zait hiruzpalau urte etxetik kanpo ematea».

Eta Euskal Herria du etxe orain, nahiz eta gauza batzue-tan Japoniako ohiturei eusten dien. «Nik egunero jaten dut arroza. Arroza ondo joaten da elikagai guztiekin. Japonian aukera ugariagoa dago jateko orduan. Hemen, adibidez, ogi-tartekoak oso lehorrak irudi-tzen zaizkit. Zertarako hain-beste ogi, interesgarriena ogiaren tartean baldin bada-go?», bota du umorez. •

Amagoia Mujika Telleria





**Ainara Estarrona Ibarloza eta Izaskun Etxeberria Uztarroz**

Donostiako UPV/EHUko Informatika Fakultateko irakasle eta ikertzaileak

## Egungo teknologia iragana ikertzeko

**U**rte batzuk ditugunok ongi dakigu zenbat aldaketa ekarri dituen teknologiak gure eguneroko bizitzara. Gaur egun pentsaezina da Internet gabe bizitzea, ez izatea eskura une oro eta toki orotatik era guztietako informazioa (eta desinformazioa) World Wide Web sistemari esker. Baina orain dela ez hainbeste (30 urte inguru?) konputagailua ez zen ohiko tresna lantoki gehienetan eta oso etxe gutxitan zegoen horrelako tramankulurik; egun ezagutzen dugun moduko telefono mugikorrik ere ez zegoen, eta lasai asko bizi ginen. Aspaldiko garaiak badirudite ere, ez da hainbeste denbora pasatu.

Teknologiak gure eguneroko bizitza nabarmen aldatu badu, zientzia egiteko modua ere errotik aldatu du, eta arlo guztietara zabaldu da aldaketa hori. Azken hamarkadan, esaterako, gero eta gehiago entzuten eta irakurtzen da Humanitate Digitalen arloari buruz (Digital Humanities). Informazio digitala prozesatzeko baliabideak eta tresnak Humanitateetako ikerkuntzaren eskura jartzea da arlo horren jomuga, eta helburu hori lortzeko beharrezkoa da Humanitateetako tradiziozko metodo kualitatiboak eta egungo metodo kuantitatiboak elkartzea.

Jar dezagun adibide konkretu bat ideia hobeto ulertzeko. Herrialde jakin bateko gizartearen bizibidea XVI. eta XVII. mendeetan nolakoa zen ikertu nahi bada, interesgarria izan daiteke ikerketa garai hartako testuetatik erauzitako informazioan oinarritzea: testu horietako aditzak erauzteak, esaterako, aukera ona dirudi. Erauzketa eskuz egiteak denbora luzea beharko du, baina testuak formatu digitalean badaude, eta testuak prozesatzeko tresnak gai badira garai hartako testuak analizatzeko (seguru asko garai hartako hizkuntza eta egungoa ezber-

dinak dira), oso denbora laburreko kontua izango da erauzketa hori konputagailuen bitartez egitea. Horrelako lanari buruzko artikulua publikatu zuten Uppsalako Unibertsitateko Pettersson eta Nivre ikerlariak 2011n, eta adibide egokia iruditu zaigu hona ekartzeko.

**Horren ildotik, ezin dugu aipatu gabe utzi azken lau urteetan garatzen aritu garen proiektua Baionako IKER zentroaren eta UPV/EHUko HITZ zentroko IXA taldearen artean: «BIM, Basque in the making» proiektua ([ixa2.si.ehu.es/bim](http://ixa2.si.ehu.es/bim)).** Proiektuaren helburu nagusia izan da Sintaktikoki Etiketaturako Euskarazko Corpus Historikoa osatzea, horrek aukera emango baitu euskal gramatikaren ezaugarri nagusien inguruko azterketa diakroniko sistematiakoak egiteko. Hala, corpus horren ustiakeak egitura sintaktikoak mendez mendez nola aldatzen joan diren erakutsiko digu eta lortutako emaitzak hizkuntzalaritza teorikoaren alorrean egin diren aurkikuntzekin alderatu ahal izango ditugu. Lana ez dago bukatuta,

zaila baita horrelako lan bati bukaera ematea inoiz, baina aurrerapen handia egin da: ia milioi bat hitz duen corpusa osatu da dagoeneko.

Horrelako ikerkuntzak eta lanak aurrera eramateko, funtsezkoa da baliabideak eta tresnak konpartitzea, eza gutza elkartrukatzea. Azken hamarkadan, nazioarteko hainbat ekimen jarri dira martxan Humanitate Digitalen arloarentzat azpiegitura egokiak sortzeko eta konpartitzeko. Horien artean daude, esaterako, Europak babestutako CLARIN ([www.clarin.eu](http://www.clarin.eu)) eta DARIAH ([www.dariah.eu](http://www.dariah.eu)) azpiegiturak, Humanitateetan eta Gizarte Zientzietan ikerkuntza egiteko baliabideak eskaintzen dituztenak. Espainia ez da oraindik partaide ofiziala azpiegitura bi horietan, baina hori lortu nahian ari gara lanean INTELE ikerkuntza sare estrategikoan ([ixa2.si.ehu.es/intele](http://ixa2.si.ehu.es/intele)). Eta ildo horri jarraiki, CLARIAH-EUS ([ixa2.si.ehu.es/clariah-eus](http://ixa2.si.ehu.es/clariah-eus)) egitasmoa ere sustatzen ari gara Europako ikerketa azpiegitura horietan euskara eta euskaraz ikertzeko aukera bultzatzeko asmoz. •



Teknologiak urte gutxitan sekulako aldaketak ekarri ditu gure bizitzara. GAUR8

# BEHATXULOTIK

Juantxo EGAÑA



EULALIA ABAITUA. EUSKAL MUSEOA. BILBO

## EMAKUMEAK KARTA JOKOAN

Ez da ohiko irudia: emakumea baserrian normalean seme-alabekin jarrita erretratatzeko zuten, edo hainbat lan egiten, hala nola laiatzen, baratzean, ganadua zaintzen, baserriko produktuak merkatuan saltzen edo arropa garbitegietan edo erreketan garbitzen. Argazki honetan emakumeak Eulalia Abaituaren (1853-1943) aurrean jarri dira igande arratsalde batean, baserriko atean karta partida bat jokatzen, atsedean une bat. Eulalia Abaitua bilbotarrak, Zeanurin (Bizkaia) 1900eko hartualdi honen egileak, irudi honekin eta antzeko beste batzuekin, beti kartetan gizonak agertzen diren topiko fotografikoa hautsi zuen, urteetan zehar errepikatu diren argazkiak eta hedabide askok oraindik errepikatzen dituztenak. Baserri munduaren irudia izan eta itxura tradizionala izan dezakeen arren, ez da hainbestekoa bere edukiari dagokionez, bere garaia gainditzen baitu.



# AMAIUR 1522

## ERRESISTENTZIA ETA ARGIA



1522KO UZTAILA. KARLOS V.A ENPERADO-  
REAREN HAMAR MILA SOLDADUK AMAIURKO  
GAZTELUA SETIATU DUTE. BERREHUN NAFARREK  
HEROIKOKI EUSTEN DIOTE AMAIERARA ARTE  
ERRESUMAREN INBASIO ESPAINIARRARI

### 500. URTEURRENEAN APARTEKO OROIGARRIA

#### BI PUZZLE, BI EUSKAL ARTISTA EIDER EIBAR // XABIER MORRAS



Haurrak  
AMAIUR.  
GAZTELUA  
100 pieza / 48 x 34 cm

17 €



Helduak  
AMAIUR 1522.  
ERRESISTENTZIA  
1000 pieza / 68 x 48 cm

20 €



**GARA**rekin, larunbata 9an eta igandea 10ean

**GARA**

laguntzaileak:  **AMAIUR** 1522  
2022

